¡Oh eta cer zorionecoac izanendire gure arimac, baldin visitatzenbaditu Virgina Mariac! orduan gure artean ez tire adituco solasa gaistoac, itz orguilo-soac; mespreciatucoditugu munduco aferac, eta orduan eztugu pensatuco gure arimaren gauzetan baicic: obeditucoditugu Jaungoicoaren manamendu guciac, ardietsicodugu humiltasuna, eta Yondoni Joanes Batista<sup>11</sup> bezala gure arima saltoca asicoda bozcarioz beteric. Gure orguilua eta desobediencia icusiric, otoiztu beardugu vigarren Misterio ontan, gure Ama Mariac visitadietzala gure arima gaichoac, eta gueldidaitetzela saindutuac. Ala eguitenbadugu ezdezazuela dudatu, visitatucogaituela bere graciarequin.

3. Yrur garren Misterioan beondatzen edo contemplazenda nola Maria Sainduac dembora arribatucenean emanzen mundura Jesus Salvatzailea gauaren erdian bortalcho batean, bi animalen artean. Emen contu eguinazue icustenduzuela Maria ateratzendela vere Josef esposarequin<sup>12</sup> Na-

3.<sup>a</sup> pág.

zaretaco echetic, arribatzendirela Belengo Irira: joatendirela echez eche ostatu vira, bainan guciac erratendietela eztutela lecuric. Ezaguturic yende oequen gogortasuna ateratzendirela campora eta viurtzendituztela veren beguiac alde guciatarra, eta azquenean icustendutela iritic campo estalbi bat; joatendire eta estute causitzen bi animale, manyatera edo gambela, eta belar batzuc baicic.

¡Oh Maria Jaungoicoaren Ama! bertze gucientzat causitzenda ostatu eta zuretzat ez? cer eztuzu merezi errecibitua izaitea? Etzara Aingueru guciac baño gueyago? Pensazazue alaber ahal maneran Josefec garbitucozuela estalbi artan choco bat Maria Saindua ezartzeco. Guelditzendire, Jaungoicoa laudatu ondoan, otoitz cartsu batean, eta gauaren erdian icustendute vere beguiequin eguiazco eguzquia etorridela mundura, erran nahidut, gure Jesus Maitea. Oh amorio divinoa! Oh Jaungoico andia! Zu aur vilacatua! zu gambela batean! zu bi animalen artean! bai au gucia eguitendu gure Jesus Salvazaileac gure confidancia<sup>13</sup> azcarr arasteco. Cer confidanciarequin<sup>14</sup> bada eztugu joanbear gu becorosac Jesusengana? Niore eztu desesperatubear; eta baldin arren Majestate anditasunac lotsatzenbagaitu, goacen Maria Virginalen gana, eta otoizdezagun ardietsi diezagula Jesucristoren baitaco eguiazco confidancia<sup>15</sup>.

4. Lau garren Misterioan pensatzenda, nola Virgina Maria berrogei egunac finitu ondoan presentatucen templora purificacioneco leguearen arabera, eta an nola ofreituzuen vere semea. Emen consideratu eta pensatubearduzue, nola Maria guciz justua, guciz garbia eta becuaren notariac gabe denaz gueroz joatenden bertze emaztequiac bezala Jaungoicoaren leguea complitzera<sup>16</sup>. Eguía da legue honec etzuela obligatzen Maria Virgina Sainduari, bainan obedecitu nahidu bertzeac bezala. Oh pareric eztuen humiltasuna! Oh beinere icusi ezten obediencia!

Oh becoros maitea! Maria Jesusen Ama, ain justua, ain garbia, ain

11. Primero escribe *San Joanes*, que luego cambia a *Yondoni Joanes Batista*, según interpretamos. La *-i* de *Yondoni* está clara, refiriéndose la posible duda a si habría que leer *Yondoni Batista Joanes*, con cambio en el orden de las palabras.

12. No dudamos en su lectura, o sea, *esposarequin*, con *-sa-*.

13. Escribe primero *confidencia*.

14. Escribe primero *confidanciarequin*.

15. Escribe primero *confidencia*.

16. Creemos que ha corregido o cambiado de *complitzera*.

gaitzicbagea edo inocenta, ain saindua denaz gueroz eztu errefusatzzen, ezta privatzen emaztequi becoloros bat bezala presentatzea purificacioneco leguearen arabera; eta zuc becatuz beteric, ciquinqueriaz beteric duzunaz gueroz zure arima, alquetucozara presentatzera Aita Confesoren baten oiñetara an zure arima garbitzeco? Etsemplu onen vistan ¿beldurtzenezara benturaz zure becatuac erratera? baldin zure biotzean sentitzenbaduzu oztasun edo alque cerbait confesatzeco; otoizazu, errayozu gure Ama Maria Maiteari emandiezazula indar eta gracia garaitzeco alque madaricatu ori.

5. Bost garren Misterioan consideratzenda, nola Maria eta Josepec galduzuten Jesus amabi urte cituelaric, eta nola irur egunez ibiliciren beti arren bila, eta nola irur garren egunean causituzuten temploan

4.<sup>a</sup> pág.

disputan cegola guizon jaquintsuenequin. ¡Oh eta emen icustenden etsemplu onequin, cembat consideradaiteque! Mariac galtzendu Jesus eta ezta pausatzen instante bat. Yoatenda bere aide eta adisquiden gana galdetzera eya icusiduten Jesus: ¿*Num vidistis quem diligit anima mea?* Icusiduzue Jesus ene seme maitea? ez Maria, eztugu icusi, erratendiote. Vere beguiac iturri bat eguinic viurtzenda alde gucietara, bainan eztu icusten bere viotzeco amorioa. Eztu jaten, eztu loric eguiten, ezta momenta bat pausatzen ceren falta duen vere vicia.

¡Ah ene a.m.! Virgina Mariac Jesucristoren presencia, compainia edo lagunguida bacarric galduzuen, bainan beinere etzuen galdu Jesucristoren gracia, eta ala ere irur egunez egoncen beti arren bila, eta etzen guelditu ach emanarte. Eta zuc, cembat dembora du galduduzula zure Jaungoicoa? ¡Ah doacabea! edo desgracia! etzara egon irur egunez bacarric Jaungoicoa gabe, anitz urte du venturaz galduzula (sic) zure Jaungoicoa, eta ala eztuzu acholaric. Bai galduduzu Jesusen gracia. ¿eta cembat negar eguindute zure beguiec? Cembat gau galduditutzu zure vicitza tristea pensatzzen?

Maria Jesusen Ama joancen vide lucean vere semearen bila, eta zu echetic elizara etzara joaten galduduzun gracia bilatzera. Mariac negar eguitendu, eta zuc eztuzu urriquiric artzen zure Jesus ofensatuduzunaz gueroz. Bada, Jesus bilatzenduenac causitucodu. Emen Misterio ontan icusi ondoan galduduzula zure Jaungoicoa eta orai arte eztuzula acholaric, escatucodiozu Maria Sainduari emandiezazula becatu gucien eguiazco urriquimendu andibat, Jaungoicoaren gracia ardiesteco eta etsayac garaitzeco.

6. Adizazue Aita Pachuquelic erratenduen etsemplu au. San Dominicac predicatzenzuenean Maria Sainduaren arrosarioa, Deabrua nagusitucen guizon heretico batez ceren gaizqui mintzatuacen arrosario sainduaz, eta loturic presentatuzuten S. Dominicari. Orduan Sainduac errancioten Deabruai; Maria Santisimaren icenean manatzendautzuet errespondidezazuela nic erranendutan guciari. Cergatic sartuzarate guizon ontan? gu emen gare amabortz mila, ceren onec arrosarioco amabost Misterioac mesprecia<sup>d</sup>ituen (sic): eta nic arrosario sainduaz errandutan gucia eguia dá?

Orduan asiciren marrascaca eta aire gucia maledizionez betetzen, ceren obliatuac (sic) ciren aitortzera ala cela. Adizazue gristinoac, erranzuten Deabruac, gure etsai Dominica onec Maria Virginaz eta arrosario sainduaz erratendituen gauza guciac, eguiac dire. Erranzuten alaber, etzutela indarric Maria

Virginaren deboten contra. Aitortuzuten, anitz, eriotzeco orduan becatorosac izanican ere, Maria deituz, Maria Virginarengana viurtuz, salvatzencirela.

Azquenean erranzuten deabruec gu borchatuac gare erratera Maria Virginaren eta asosario (sic) sainduaren devocionean perseveratzen duena ez teldatzen, ceren Mariac ardietsicodion salvamendua. Orduan S. Dominica asicen populoarequin arrosarioa erraten, eta Agur Maria bacochoan icustenzuten ateratzencirela guizon arrenganic multsuca icatz viciac bezala, eta finituzutelaric gelditucen (sic) libro guizon hura. Miraculo onequin heretico anitz convertituciren, eta guciac eguinciren arrosario sainduaren devotac. Ala beraz, cer esperanza ez tu izanbear Maria Sainduaren debotac, baldin ohoratzen badu arrosario sainduarequin! Ez paduzue izan orai arte devocione au, egun beretic asizaitzte eta ala izanenduzue...

II

2.<sup>a</sup>

+

*Qui me invenerit, inveniet vitam et hauriet salutem á Domino.*

*Prov. 8. 35.*

*Bilatzen-naunuenac (sic) causituconau, eta Jaungoicoaganic izanendu gracia.*

Virgina Mariaren eguiazco devotoa edo Jaincotia, errandaiteque doatsubat dala (sic) mundu untan, eta cerua ardiesteco vide chuchenean dagola. Bilatzen=naunuenac erratendu; bainan norc bilatzendu Virgina Maria? badaquizue norc? maitatzenduenac eta ohoratzenduenac. Eta ohore gucien artean cein izanenda oberena, baliosuena, andiena, eta botere gueyago duenac Maria beti garbiaren baitan? Anitz eta onac izanic ere Maria Sainduaren devocione guciac; bainan Aingueruac iracutsicigun Agur Maria, edo salutacionea, eta Andre dena Mariac verac San Dominica vere devotari iracutsi eta manaticion predicazezan devocionea, au da arrosario saindua. Nere ustean eliza gucian ezta, eta oraino erranendut, eztaitequela izan devocionebat arrosario saindua baino andiagoa; ceren emen consideratzenbaitire Jesucristoren eta Maria Sainduaren Erospeneco edo erredencioneco<sup>1</sup> Misterio principalenac gure vicia moldatzeco eta vertuteac ardiesteco.

Lembico partean esplicatu izan nituen nola erranbearditzuen gozozco Misterioac, orai esplicatucodautzuet nola erreztatubarditutzuen dolozcoac, tristeciozcoac. Bainan lehengo salutadezagun gure Ama *agur Maria erranez.*

1. Dolozco lembico (sic) Misterioan pensatzenda nola Jesucristo gure salvatzaileac Olibetaco<sup>2</sup> baratzean bere gorputzetic ichurizuen odolezco<sup>3</sup> icerdia. Emen consideratubearduzu, edo pensazazu icustenduzula Jesus arribatzen dela Olibetaco<sup>4</sup> baratzerá, an belaunicatzen dela eta astendela vere Aitari otoitz eguiten. Bainan ¡oh ene a. m.! An momentu batean icustenda Jesus inguraturic guc eguinditugun becatu guciez. Vere viotz gucia tristeciaz betetzenda eta erratendu, triste dago ene arima eta ezta consolatuco il arte. Eta norc betetzendu tristeciaz Jesus? ¡Ah gure becatuec! Norc ateraraztendio odolazco icerdia? gure becatuec. Eta norc eroraraztendu auspez lurrerat? Ah! gure orguiloac, gure soberbiac. Eta au gucia ezagutu ondoan ezcara humiliatuco? Eztugu artuco gure becatu guciez eguiazco urriqui eta damu andi bat? bai, junta edo bat eguindezagun gure becatuen damua Jesucristoren penequin: Artacotz otoizdezagun Maria Santisima ardietsidiezagula gure becatu gucien dolorea.

2. Vigarren Misterioan contemplatzenda, nola Jesucristo gure Jauna izancen azotatua edo cealdua<sup>5</sup> Pilatosen echean, eta nola, S. Brigidac dionez,

1. Ha añadido entre líneas *edo erredencioneco*.

2. Encima de *Yesemanico*, entre líneas y sin tachar ni borrar esta voz, ha colocado *Olibetaco*, con tinta color marrón.

3. Creemos que primero escribe *ódolazco*, corrigiéndolo luego a *odolezco*. Aparece *odolazco icerdia* un poco más abajo, en este mismo párrafo.

4. Como la nota 2.

5. Escribe primero *celdua*, introduciendo luego una *-a-* y así *cealdua*.

errecibitu izancituen sei mila, sei eun, irur ogeui ta sei azotacaldi. Pensazazue emen icustenduzuela sartzen Jesus soldaduen artean Pilatosen echean, eta an biluztendutela, eta corda batzuequin lotzendutela arroiña edo arrizco colomna<sup>6</sup> baterat, eta bereala infernuco deabru batzuc iduriric astendirela colpeca gorputz inocente arren gainean.

Icustenduzue nola instantean betetzendela zauriz, eta vere gorputzac iduriduela leguenartsu<sup>7</sup> baten edo leproso baten gorputza, *et reputavimus eum quasi leprosum*. Ah! eta nor da causa? Oh! ene becatu madaricatuac, oc dire causa ceren ala icustenbaitut ene Jesus ona, ene Jesus maitea. Ah! bai nere becatuac dire causa.

## 2.<sup>a</sup> pág.

Elizaco Aita Sainduac segurtatzendute Jesucristoc sufritu *nhai* (sic) izanzuela tormenta cruel au, particulariqui satisfazione bat emaiteco Aita Eternalari guizonen becatu lizun eta desonest guciez. Adituduzue becolorosac? Zuen desonestqueriac azotatudute Jesucristo. Adituduzue? bada otoi, ezdezazuela gueyago azotatu, asqui da eguinduzuenta orai arte. Misterio ontan otoizdezazue Virgina Maria librazaitetzela vicio itsusi eta ahalquegarri untaric, ceren vicio onec bacarric bertze guciac baino gueyago betetzendu infernua arimaz. Garvitasunaren contraco tentacionetan deizazue Maria, eta...

3. Yrur garren Misterioan pensatzenda nola izancen arantzezco coruarequin<sup>8</sup> coruatua<sup>9</sup>, eta trufazco Erregue bat bezala tratatua. Emen pensatu bearduzue izpirituzco veguequin icustenditutzuela nola borrero madaricatu ec hunatu eta aspertu ondoan azotequin, lachatzendutela Jesus eta indarric gabe erortzendela lurrerat, eta an, S. Agustinec dionez, ibiltzendutela osticoca pilotabat bezala zangopean; *quasi pillam pedibus sacrilegis exagitabant*. Guero jar araztendute arribaten gainean, eta canaberazco maquil bat ezartzendite escuan, arropa edo tresna zar bat bizcarrean Manto erreala bezala, eta azque-nean arantzezco coru<sup>10</sup> batequin corutuzuten<sup>11</sup>, eta maquilequin jotzencioten obequiago sartzeco. Trufatzenciren erranez *Ave Rex judeorum* (sic). Agur, Yuduen erreguea.

Dembora verean thu eguitencioten<sup>12</sup> beguitartera<sup>13</sup> eta ematenciozcaten bearri ondocoac, zapladac, ucaldiac<sup>14</sup>. Bada guisa berean eguitendute confesatzendirenac eta bereala becatuac itzultzendirenac: erratendute utzico dutela ocasionea, *abitura* gaistoa, autsicodituztela adisquidetasun gaistoac, bainan elizatic ateratu ondoan fite itzultzendire lenagoco ocasionetarat (sic), oitura edo costuma gaistoetarat... Bai tornatzendire arantzezco corua<sup>15</sup> ezartzera, thu eguitera<sup>16</sup>; tornatzendire bearri ondoco crudelac emaitera. Emen escatu

6. Primero escribe, al parecer, *columna*.

7. Encima de *leguenartsu*, entre líneas, escribe *sorbayo*.

8. Primero escribe *coroyarequin*, que luego cambia.

9. Escribe primero *coronatua*, que luego cambia.

10. Escribe primero *coroya*, que luego cambia.

11. Escribe primero *coronatuzuten*, cambiándolo luego.

12. En lugar de *thu eguitencioten*, escribe primero *botatzenciotèn istuac*, que luego tacha.

13. Después de *beguitartera* escribe *edo visayera*, que luego tacha.

14. Las voces *zapladac*, *ucaldiac* las añade entre líneas.

15. Escribe primero *coroya*, cambiando luego.

16. Escribe *thu eguitera* en lugar de *istuac bere visayera botatzera*, que tacha.

beardiogu gure Ama Virgina Mariari, gueyago nahidugula eriotzea sofritu<sup>17</sup>, ecen Jaungoicoa ofensatu, gueyago nahidugula mila aldiz il ecen Jesus injuria-tu.

4. Lau garren Misterio huntan contemplazenda, nola Pilatosec Jesus sentenciatu ondoan ezarricoten gurutzea bizcarrean iltzeco bertan ¡oh emen bai, cer campo, cer barruti andia presentatzenden consideratzeco! Eguindezazue contu an gaudela gucia icusten. Aditzenditugu escatzendutela Jesusen eriotzea, eta Pilatosec beldurrez ematendio iltzeco sentencía. An berean artzendu Jesusec gurutzea bere bizcarrean eta abiatzenda Calvarioco mendira. Eztuzue icusten zuen izpirituarequin nola Jerusalengo carrica guciac dauden jendez beteric eta nola guciac galdetzenduten ¿nor dá daramazuen ori? Soldaduec erratendute, au dá Jesus deitzenden guizon erotzarr hura: bertze batzuec erratenzuten<sup>18</sup> au dá guizon ordi, sorguinquerietan ibiltzencen hura. Pilatos cer eguinduc? ire tribunalean iltzera sentenciatuduc aimbertze il *pistutucitue-na?* (sic) eztuc erran inocentea dala? Uzdezagun madaricatu au, eta joacen (sic *j-*) Jesusequin.

Emen pensatubeardugu nola carrica barna zoanean ateratzenden Maria vere ama azquen adioa erraitera: iduritzenza *erranenciola ¡Ehu Jesu fili mi!* Ah ene Jesus Maitea! nora zoaz? Ama, ni vanoa gurutze huntan iltzera; consolazaita, ene ama, ala emanendiot ene aitari satisfacione osobat. Abiatzenda Maria azquen besarca emaitera vere Jesus seme maiteari; bainan borroeroec eztute usten. Calvarioco Mendira arribatu bezain laster biluztendute Jesus; bainan nola arropa gucia estecatua baicegon gorputzeco odolari,

3.<sup>a</sup> pág.

orai berretzendire zauri guciac. pensazazue cer errabia<sup>19</sup>, cer crudelitate<sup>20</sup>, cer viotzgoortasunarequin sartzendioten zango eta escuetaric itze tzorrotz ec: eta veguirazazue cer paciencia andiarequin sufritzenduen gure amorioagatic. Eta guc gure aimbertze becatuen satisfacionetan eztugu cerbait eguinbear? Ezditugu artubear, edo errecibitubear Jaungoicoac egortzendauzquigun<sup>21</sup> gurutzeac? Otoizdezagun Maria ardietsidiezagula Jesusenganic erresinacione edo mendaro saindu eta eguiazco paciencia bat gure naigabe<sup>22</sup> eta gurutze gucietan.

5. Bortz garren Misterioan contemplazenda, nola Jesus ilcen gurutzean. Emen Jesucristoren gurutzearen aintzinean jarriric belaunico, alchadetzagun gure veguiac eta icusicodugu irur itzequin josiric vere zango eta escuac, vere burua anrantzeco (sic) coru<sup>23</sup> batequin, vere bularra lantza batez pasatua, eta vere gorputz gucia porrocatua eta zauri bat eguinic. Ah! eta nor da ori? Ori dá Jesus gure Creatzailea, gure salvatzailea, Maria Sainduaren seme bacarra, itz batez: Ori dá Jesus gure Aita. Gure Aita! Eta norc ezarridu gurutze ortan? gure becatuec ezarridute. Gure becatuec? Bai. ¡Oh amorioa! eta oraino segui-

17. Parece que primero escribe *sufritu*.

18. Parece que primero escribe *erratenzuten*, tachando (?) luego la -n.

19. Ha habido corrección en la primera letra, no decidiéndonos a decir cuál ha elegido finalmente, es decir, si se trata de *errabia* o de *arrabia*.

20. Esta voz está cambiada de *crudeldade*.

21. Cambiada de *igortzen*.

22. Coloca *naigabe* encima de *tribulacione*, sin tachar esta voz.

23. Cambiada de *coroya*.

tucodugu gure Jaungoicoa ofensatzen? Alchazatzu zure veguiac gurutze saindu ortara eta pensazazu ala.

Ene Jesus Maiteac zangoac ditu josiric nere amoreagatic, eta nic nahidut ibili echebatetic bertzera, ocacione batetic bertzera, compainia gaisto batetic bestera? (sic) Ez ene Jesus oná ez, emendic aintzina enaiz ala ibilico. Zuc escuac bi itzequin josiric, eta nic cer eguindut nere escuequin? Cembat aldiz edatuditut bear ezten gaucetarat? cembat aldiz eta cembat maneretan nere escuequin ezditut eguin becatuac? Zuc zure burua arantzezco corua<sup>24</sup> batequin pasatua, eta ala ere seguitucodut orai arte bezala pensamendu eta gogoeta ztzarretan? (sic) ez, ene Jesus maitea. Zuc gorputz gucia zauribat eguinic, eta nic tratatu beardut ain eztiqúi ene gorputz etsaic andiena? ez ene Jesus maitea<sup>25</sup>; nic tratatucodut mericidun bezala. Nic eztut nahi zure ganic bertzeric zure gracia baicic, zure amorioa oso osoa nahidut. Eta gracia au ardiesteco otoizdezagun Maria Virgina eta onec ardietsicodigu Jesucristoren amorioa eta gracia. Adizazue etsempla au.

6. Emaztequi bat vicicen ocacione gaisto batean, ceren pensatzenzuen an bacarric izanenzuela jateco eta vestitzeco. Errancioten vere adisquidec errancezala arrosario saindua, eta otoizcezala Maria Virgina, ala eguinzuen; eta gau batez aguertucizayon Andre Dena Maria eta errancion: Utzazu becatua, fidazaite ene baitan nic emanendizut bearduzuna. Biramunean bereala joancen confesatzera; eguinzuen confesione on bat, eta guero deus ere etzion faltatzen. Nic ezagutzendut presunabat sartucela ocacione gaisto batean, erori izanzela becatu anitzetzan; confesatzencen bainan bereala erortzen, ceren etzuen uzten ocacione tzarra. Nahizuen utzi bainan ecin garaituz cebilan. Egun oro erratencion arrosarioa Maria Sainduari, eta vere viotz guciarequin escatzencion libratzeco gracia.

¡Oh miraculo andia! Maria Sainduac emancion aimberte indar, gracia eta coraje, non utzi baicituen becatu guciac, ocacionea eta urrunducen beinere ez itzultzeco.

Ea veraz, baldin orai arte ezipaduzue izan erreztatzeco devocionea, asizaitetzte egun berean: ilun esquila sonatu ondoan erretirazaitezte echera eta an Maria Sainduaren aitzinean (sic) belaunicaturic, asidaela eheco burua. ¡oh cer gracia, cer doainac, cer ondasunac etorricodire familia arien gainean! Ala icusiditut...

24. Cambiada de *coroya*.

25. Colocada *maitea*, entre líneas, encima de *amultsua*, sin tachar ésta.



IIIa



Maria Sainduari eguitendiren ohore gucien artean andiena eta baliosena dá arrengana maiz yoáitea eta humilitate andienarequin escatzea arren laguntza gure mundu huntaco miserietan, ocasione eta irriscuetan ez erortzeco, particularqui tentatuac izaten garenean garbitasunaren contra. Yoaten ba gara confidencia osobatequin izanen dugu andre dena Mariaren proteccionea, eta asqui dugu erratea Agur Maria bat, edo artzea escuetan arrosario saindua, edo alchatzea veguiac Maria Virginaren potreta bati. É bien bada. Aimbertze indar eta poderio baldin badu arrosarioac escuetan Deabruaren contra, cer indar eta poderio eztu izanen erratenbada debocione andi batequin? Consideratuz Jesucristoren misterio principalenac? bertze vi partetan aditu duzue nola erran bearditutzuen<sup>1</sup> edo nola pensatubearditutzuen misterio Gozosoac eta dolorosac: bada orai aditucoduzue nola erran bearditutzuen<sup>2</sup> misterio Gloriazcoac<sup>3</sup>. *Zauste...*<sup>4</sup>

1. La *t* de *-tzuen* la ha añadido después, pero es contemporánea de las demás letras. En esta misma línea escribe *pensatubearditutzuen*, sin olvidos ni añadidos.

2. Lo que se ha dicho en la Nota precedente.

3. Escribe primero *Gloriosoac*, que luego cambia a *Gloriazcoac*.

4. *Zauste...* se halla subrayada en el original.

IIIb

3.<sup>a</sup> *qui me invenerit, inveniet vitam, et hauriet salutem á Domino. Prov. 8. 35.*  
*bilatzenaunuenac<sup>1</sup> causituconau, eta Jaungoicoaganic izanendu vicitzeco gracia.*

Maria Sainduari eguitendiren ohore gucien arten andiena eta baliosena dá arrengana maíz joatea, eta humilitasun andienarequin escatzea arren laguntza gure mundu huntaco miserietan, ocasione, perill eta irriscuetan ez erortzeco; particularqui edo bereciqui tentatuac izatengarenean garbitasunaren contra. Orduan bada, joatenbagara confidancia<sup>2</sup> oso batequin izanendugu Andre dena Mariaren proteccionea<sup>3</sup>, edo estalpea, eta asqui dugu erratea Agur Maria bat, edo artzea escuetan arrosario saindua, edo alchatzea veguiac Maria Virginaren ecanza, imagen edo Potreta bati arren laguntza izaiteco.

Ongui bada: Aimbertze indar eta poderio baldin badu arrosarioac escuetan deabruaren contra, cer indar eta botere eztu izanen erratenbada devocione andi batequin? consideratuz Jesucristoren misterio principalenac? Bertze bi partetan adituduzue nola erranbearditutzuen, edo nola pensatubearditutzuen misterio gozosoac eta mingarriac edo dolorosac: bada orai aditucoduzue nola edo cer maneraz erranbearditutzuen misterio

1. Así escribe primero, pero luego coloca entre líneas *au*, indicando que hay que introducirlo entre la *n* y la *a* de la primera sílaba *na*, de modo que finalmente sería *bilatzenaunuenac*, seguramente una errata.

2. Cambiada de *confidencia*.

3. Coloca *mempego*. *Laguntza* encima de *proteccionea*, entre líneas y sin tachar la última voz. No indica dónde hay que meterlas.

Lembicico Misterio Gloriazcoan pensatzenda, nola irur garren egunean ilquicen Jesus glorios, guehiago ez iltzeco. Emen consideratubearduzue, cein andia otecen Jesucristoren gloria, elqui izancenean tombatic! Infernu gucia guelditucen icaraturic eta guizon *adanen* seme guciac libro Deabruaren esclavotasunetic. eta ezta izanen bada herroquerietan<sup>5</sup> andiena eta itsuena, Jesucristoc libratu ondoan, aimbertze sufritu ezqueroz, berriz itzultzea Deabruaren azpira! pensazazue, eta cergatic viurtzendire guizonac lehenagoco esclavotasunera? Ah! icusiduzue, satisfacione itsusibatengatic, placer batengatic ceinac etziren venturatzen guizonen presencian eguitera. Oh ene anai m. utzazu becatua eta otoizdezagun Maria Virgina ardietsidiezagula Jesucristoren amorioa ez guehiago erortzeco Deabruaren atzaparretan, eta

Vigarren Misterioan contemplantzenda nola Jesucristo gure Salvatzailea berrogoi egun pasatu ondoan mundu huntan piztu<sup>6</sup> ezqueroz igancen cerurat Maria Sainduaren eta Apostoluen presencian. Emen consideratubearduzue Jesucristoren ganic errecibituditugun fagore eta graciac, cein andiac, cein miragarriac diren! Gure lembicico guratsuec becatua eguinzuten bezain fite galduzuten ceruco drechua, ceruco atead etsiac edo cerratuac izanciren eta Aingueru bat ezarricen ezpata batequin nior sartzera ez uzteco. Oh becatu mada-

5. Parece que primero escribe *herroqueria andiena*, siendo clara la doble *-rr-* antes y después de la corrección o modificación.

6. Escribe primero, según creemos, *piztutu ondoan*, siendo la única duda el final en *-tu* de *piztutu*, pues hay dos letras tachadas en ese punto y la primera es con toda probabilidad, por no decir seguridad, la letra *t*. Cambia, pues, *piztutu ondoan* a *piztu ezqueroz*.

gloriosoac. Bainan lenago errandezagun *Agur Maria*.

1. Lembicico misterio gloriazcoan pensatzenda, nola irurgarren egunean ilqui cen Jesus glorios gueyago ez iltzeco. Emen consideratu bearduzue, cein andia otecen Jesusen gloria ateratu izancenenean obiatic! Ynfernu gucia guelditucen icaraturic eta Adanen seme guizon guciac libro Deabruaren mempeatic edo esclavotasunetic. Eta ezta izanen eroquerietan andiena eta itsuena Jesucristoc libratu ondoan, aimbertze sufrituezqueroz berriz itzultzea Deabruaren azpira! pensazazue, eta cergatic viurtzendire guizonac lenagoco mempeara edo esclavotasunera? Ah satisfacione itsusi batengatic, placer batengatic, ceinac etziren venturatzen guizonen presencian eguitera ¡Oh ene a. m.! Utzazu becatua, eta otoizdezagun Maria Virgina ardietsidiezagula Jesucristoren amorioa ez gueyago erortzeco Deabru etsayaren atzaparretan<sup>4</sup>. Eta ala beti...

2. Bigarren misterioan contemplantzenda, nola Jesucristo gure Salvatzailea berrogoi egun pasatu ondoan mundu huntan piztu ezqueroz igancen cerurat Maria Sainduaren eta Apostoluen presencian. Emen consideratu bearduzue Jesucristoren ganic errecibituditugun ontarteac, fagoreac eta graciac, cein andiac, cein miragarriac diren! Gure lembicico guratsuec becatua eguinzuten bezain laster edo fite, galduzuten ceruco zucená, margoa edo derechoa: bai, ceruco atead ertsiac, cerratuac izanciren eta Aingueru bat ezarrizuen bortan ezpata batequin nior sartzera ez uzteco. ¡Oh becatu madaricatu!

Bainan alegratu beargara ceren Jesucristoc idequidizquigan ceruco atead; eta guc maitatzenbagu Jesus, zabal zabala instante gucietan izanen-

4. Cambiada de *atzaparretan*.



ricatua! Bainan alegratu beargara ceru-  
ren Jesucristoc idequi dizquigun<sup>7</sup> ce-  
ruco atead; eta guc maitatzen badugu  
Jesus, zabal zabala instente gucietan  
izanenditugu atead idequiac. bainan  
ezta izanen miseria andibat Jesucris-  
toc vere eriotzearequin ceruco Ateac  
idequidituen<sup>8</sup> ezqueroz, gure faltaz,  
guretzat cerradaitetzen! bai, e. a. m.<sup>9</sup>  
miseria andia; eta bizquitartean //  
(pág. 2) placer batengatic abando-  
natzenda cerua, atseguin gucien  
echea, alegracia gucien toquia, Sain-  
du, Aingueru, Jesus eta Mariaren  
compainia eta joatenda infernura ma-  
lur eta maledicione gucien lecura<sup>10</sup>.  
Emen gure viotz guciarequin otoiz-  
dezagun arguidetzala gure entendi-  
menduac<sup>11</sup> ezagutzeco mundu hunta-  
co gauzac diren bezala, pasatzendirela  
itzala bezala, eta cein andiac diren Je-  
sus gure Aitac ofreitendauzquigu-  
nac<sup>12</sup>.

Yrur garren Misterioan contem-  
platzenda, nola Jesucristoc igorri-  
zuen Izpiritu saindua Mendecoste  
egunean Cenaculo deitzencen  
toquira<sup>13</sup>, non vildiac ceuden Apos-  
toluac, Maria Virginaren compainian.

7. Primero escribe *idequi gaituen*, ta-  
chando luego *gaituen* y colocando entre lí-  
neas, encima de *idequi*, la forma *dizquigun*. A  
continuación de *dizquigun*, también entre lí-  
neas, pone *edo darozquigun*, que anula luego,  
tachando *edo darozquigun*. La primera redac-  
ción, sin tachaduras, sería *idequi gaituen*; la  
segunda, igualmente sin tachaduras, sería *ide-  
qui dizquigun edo darozquigun*. Por otra par-  
te, la *o* de *darozquigun* es un borrón, pero  
hecho con toda intención.

8. Primero escribe *diqui*, que luego ta-  
cha y pone *idequi*, con *i-* inicial y cambio de la  
*i* de la sílaba *di* en *e*.

9. Estas iniciales equivalen a *ene onai  
maitea* (c).

10. Cambiada de *errira*.

11. Encima de *entendimenduac*, entre  
líneas y sin tachar esa palabra, escribe *Izpiri-  
tuac*.

12. En lugar de *dauzquigunac* escribe  
primero *gaituenac*, tachando luego.

13. Cambiada de *echera*.

ditugu atead idequiac. Ezta bada iza-  
nen miseria andibat Jesucristoc bere  
eriotzearequin ceruco bortac idequi-  
dituen ezgueroz gure faltaz, guretzat  
cerradaitetzen! bai, miseria andia; eta  
bizquitartean placer batengatic aban-  
donatzenda cerua, atsequin gucien  
echea, alegrancia gucien toquia, Sain-  
du, Aingueru, Jesus eta Mariaren  
Compainia, eta joatenda infernura  
gaizqui eta malediene gucien lecura.  
Emen gure viotz guciarequin otoiz-  
dezagun arguidetzala gure adimen-  
tuac, gure izpirituac ezagutzeco mun-  
du huntaco gauzac diren bezala, pa-  
satzendirela itzala bezala, eta *cer* an-  
diac diren Jesus gure Aitac ofreitzen-  
dauzquigunac.

//(pág. 2) 3. Yrur garren Miste-  
rioan contemplazenda, nola Jesu-  
cristoc egorrizuen<sup>5</sup> izpiritu saindua  
Mendecosteco egunean Cenaculo  
deitzencen toquira, non bilduric ceu-  
den Apostoluac, Maria Virginaren  
Compainian. Emen pensatubeardu-  
zue, Apostoluac izpiritu saindua erre-  
cibitu baino len cein flacoac eta cein  
otzac ciren Jaungoicoaren  
amodioan<sup>6</sup>; bada au gucia aguerida  
Jesucristoren pasionean, ceren batec  
saltzendu, bertze batec ucatzendu,  
erranez eztuela ezagutzen, eta guciec  
abandonatzendute. Bainan izpiritu  
saindua errecibitu ondoan, eztire le-  
nagoco flaco, otz<sup>7</sup> lazo eta bildurti ec;  
ez, guelditzendire Jaungoicoaren  
amodioz<sup>8</sup> bete beteac, eta onengatic

5. Cambiada de *igorrizuen*, supone-  
mos.

6. Cambiada de *amorioan*.

7. Escribe primero *flaco*, *eta otz*. Tacha  
luego *eta*. Finalmente, añade después de *otz*,  
entre líneas, *lazo eta bildurti*.

8. Cambiada de *amorioz*.

Emen pensatubearduzue, Apostoluac izpiritu saindua errecibitu baino behen cein flacoac, eta cein otzac ciren Jaincoaren amorian; bada hau gucia aguerida Jesucristoren pasionean, ceren batec saltzendu, bertze batec ucatzendu, eta guciec abandonatzen-dute: bainan Mendecoste egunean izpiritu saindua errecibitu ondoan, ez-tire lehenagoco flaco eta otz ec<sup>14</sup>; ez, guelditzendire Jaincoaren amorioz beteac eta onengatic ichurtzendute beren odol gucia. Oh amorio divinoa! arrazoin andiarequin erratzen S. Agustinec, *qui amat non laborat*: Jaincoa maitatzenduenac ezditu sentitzen trabailuac, ezditu sufritzen gurutzeac; Jaincoa maiteduena<sup>15</sup> alegratzenda miserietan, gozatzenda gurutze eta persecucionetan... *qui amat non laborat*. ea veraz, emen escatubeardiogu gure Ama Virginia Mariari, ardietsidiezagula amorio sainduaren dohoina, eta orduan mundu huntaco miseria, gurutze eta... guretzat izanendire eztiac.

Laugarren Misterioan contemplantzenda, nola M.<sup>a</sup>S.<sup>a</sup><sup>16</sup> amabi (sic) urte pasatuezqueroz mundu huntan Jesucristoren eriotzearen ondoan eramanzuten Aingueruec cerurat. Emen pensatzenda nolacoa izancen M.<sup>a</sup> Sainduaren eriotzea. Oh cein yustoa, cein ona, cein ezti! Mariac icustendu arribatzendela eriotzea, bainan icustendu alegranciaz, consolamenduz, eta tranquilitatez beteric. Eztire icusten arren baitan inquietamenduac icariac, lotsac eta beldurrac; ez, eta cergatic? ceren Andre dena Mariaren<sup>17</sup> vicia beti izanbaicen ona, beti yustoa.

14. Cambiada de *oriec*.

15. Creemos que antes decía *maitatzenduenac*, tachando luego *-tzen-* y *-c* y cambiando la *-a-* de *-ta-* en *-e-*.

16. Abreviatura de *Maria Santisima*.

17. Cambiada la expresión de *Maria Andre denaren*, pero en la misma fecha de la primera redacción.

ichurtzendute beren odol gucia. Oh Amodio<sup>9</sup> Divinoa!

Arrazoin andiarequin erratzen S. Agustinec: *qui amat non laborat*: Jaungoicoa maitatzenduenac ezditu trabailuac, bearrac, nequeac sentitzen, gozoac, eztiac dire<sup>10</sup> gurutzeac: Jaungoicoa maitatzenduenac<sup>11</sup> alegratzenda miserietan, gozatzenda, pozcariatzen gurutze eta persecucionetan: *qui amat non laborat*.

Ea bada, emen escatubeardiogu gure Ama Virginia Mariari ardietsi diezagula amodio<sup>12</sup> sainduaren doainac, eta orduan mundu huntaco gurutze eta miseriac, eztiac izanendire guretzat. Oh cer alegrancia, cer placer izanendu gure viotzac!

4. Lau garren Misterioan contemplantzenda, nola Maria Santisimac 23 (sic) urte pasatu ezqueroz mundu huntan Jesucristoren eriotzearen ondoan eramanzuten cerurat Aingueruec. Emen pensatzenda nolacoa izancen Maria Sainduaren eriotzea; ¡Oh cein justoa, cein ona, cein ezti! Mariac icustendu arribatzendela eriotzea; bainan icustendu alegranciaz, consolamenduz eta tranquilitatez, soseguz eta paquez beteric. Eztire icusten arren baitan inquietacioneac, icarac, lotsac eta beldurrac; ez, eta cergatic? Ceren Andre dena Mariaren vicia beti izan baicen ona, beti

9. Cambiada de *Amorio*.

10. Coloca *gozoac, eztiac dire* encima de *ezditu sufritzen*, entre líneas y tachando estas palabras.

11. La *-c* del ergativo añadida posteriormente.

12. Cambiada de *amorio*.

Apostoluac eta Aingueruac arritzen-dire Maria ahala icustez. bainan badaquizue San Agustinec erratenduen-a, nolacoa den vicia ahalacoa<sup>18</sup> dela eriotzea. Eta gure eriotzea nolacoa izanen oteda? Ah sobera errandez-aquet eztela izanen alacoa! Ceren momentu artan orai eguitenditugun becatu eta uts guciac presentatucodire inquietatzera. Orduan pensamenduac, gogoetac... Bainan adizazu; eta consolazaita, zuc ustenbaduzu becatua, vici gaisto eta escandalosa, eta ohoratzenbaduzu Maria, onec Amari-c oberenac bezala lagunducodizu eriotzeco orduan, eta sentitucoduzu Virginaren lagunta arren debota guciac sentitu eta ezagutuduten bezala // (pág. 3) Eta hau gucia ordu artan izaiteco yarrizaita yadanic momentu huntan berean Maria Sainduaren proteccionen azpian, eta autazazu zere patrointzat<sup>19</sup>, zere Amatzat<sup>20</sup>; bainan beti cerreitzeco<sup>21</sup> deliberacione fermu eta constant batequin.

Vortz garren Misterioan consideratzenda, nola gure Ama V.<sup>a</sup> Maria izancen coronatua Jesus vere Semea-ganic, eta dembora berean consideratzenda Saindu guciac gloria. Emen azquen misterio huntan consideratubeardugu Maria Saindua Jaincoa ganic coronatua izancenean ceruan seinalatua izancela gure avocatzat, eta avocata baten oficio berac eguin beardituela vere debotequin. Amadeo doatsuac erratendu, Maria Virginac beti eta continuo galdeguitenduela gure fagoretan: *adstat B. Virgo semper interpellans pro nobis*. Eguia dá Andre dena garciac otoiztenduela bere semea gucientzat, baijuostoa.

18. Cambiada de *holacoa*.

19. Cambiada de *patroina*.

20. Cambiada de *ama bezala*, tachando *bezala*.

21. Así escribe, pero en el sermón IIIb aparece *servitzeco*.

Apostoluac eta Aingueruac arritzen-dire Maria ala icustez. Bainan, badaquizue S. Agustinec erratenduen-a, nolacoa den vicia alacoa dela eriotzea.

Eta gure eriotzea nolacoa izanen ote dá? ¡Ah sobera errandez-aquet eztela izanen olacoa! Ceren memuntu artan orai eguitenditugun becatu eta uts guciac presentatucodira inquietatzera, eta acusatzer-a. Orduan pensamenduac, gogoetac... Bainan adizazu, eta consolazaita; zuc ustenbaduzu becatua, vici gaistoa eta escandalosa, eta onratzen edo ohoratzenbaduzu Maria, onec amari-c oberena bezala lagunducodizu eriotzeco orduan, eta sentitucoduzu Virginaren laguntza arren debota guciac sentitu eta ezagutuduten bezala. Eta au gucia ordu artan izaiteco jarrizaita jadan-ic, momentu huntan berean Maria Sainduaren proteccionen azpian, eta autazazu cere Patrointzat, cere amatzat; bainan beti servitzeco deliberacione fermu eta constant batequin.

5. Bortz garren Misterioan consideratzenda, nola gure Ama Virginia Maria izancen coronatua Jesus bere semea ganic, eta dembora berean consideratzenda Saindu guciac gloria. Emen azquen Misterio huntan consideratubeardugu Maria Saindua Jaungoicoa ganic coronatua izancenean ceruan seinalatua izancela gure avocatzat, eta Avocata baten oficio berac eguin beardituela bere debotequin. S. Amadeoc erratendu, Maria Virginac beti eta continuo galdeguitenduela gure fagoretan: *Adstat B. Virgo semper interpellans pro nobis*.

//(pág. 3) Eguia dá Andre dena garbiac otoiztenduela bere Semea gucientzat; bainan berezqui arregana joatendirentzat, eta arren laguntza confidencia osobatequin escatzen-duentzat. Orrengatic beti eta instante oro escatu beardiogu San Felipe Nerequin, *Maria Jaungoicoaren Ama otoiz zazu Jesus gugatic*: bai eta Eliza

nan bere(z)qui arrenzana yoatendire-  
nentzat<sup>22</sup>, eta arren laguntza confi-  
dencia osobatequin escatzendutenen-  
tzat. Orrengatic beti eta instehoro es-  
catubeardiogu San Felipe Neriquin  
Maria Jaincoaren Ama otoizazu Jesus  
gugatic, Elizarequin, Maria Saindua,  
Jaincoaren Ama, eguizu otoitz gu  
becatorentza(t) orai eta gure herio-  
tzeco orenean. *Halabiz*. Oh cein doa-  
tsuac izanengaren bearden debocione  
eta atencionearequin baldin erreza-  
tzenbadugu arrosario saindua! Oh  
cein fite erreglatucoditezquien<sup>23</sup> gui-  
ristinoen costuma tzarrac! nola icusi-  
coguenituzquien<sup>24</sup> bertuteac vicioen  
toquian eta *practica* honac amoriozco  
hele itsusien plazan. fite ezagutuzi-  
tuen gure Aita San Dominicac arrosa-  
rioaren efetu honac. Cembat heretico  
etzuen convertitu? cembat guiristino  
atera etziren becatutic? cembat  
estire<sup>25</sup> asi vici saindu baten eguiten?  
cembatec eztute eguin heriotze sain-  
dubat?

Gure Eliza Ama Sainduac icusiric  
devocione honec mundu gucian egui-  
tendituen gauza miragarriac<sup>26</sup>, vere  
partetic eguindu ahal gucia abrats  
arazteco indulgenciez *ahala* parcialez  
nola Plenariez. Sei Erromaco Aita  
Sainduac anitz indulgenciequin  
abratstudute otoitz Saindu hau. Arro-  
sario partebat erratenduenac

22. En un primer momento se le escapa la sílaba *-re-*, que la introduce después.

23. Ha escrito primero *erreglatucodiren*, cambiando luego a *erreglatucoditezquien*.

24. Ha escrito primero *icusicoguenituen*, cambiando luego a *icusicoguenituzquien*.

25. Escribe primero *cembat asi estire*, cambiando luego a *cembat estire asi*. No estamos nada seguros sobre si hay que leer *estire* o *eztire*.

26. Primero escribe *icusiric eguitendituen gauza miragarriac devocione honec mundu duco bazter gucietan*, que luego cambia a lo que hemos puesto en el texto, o sea, *icusiric devocione honec mundu gucian eguitendituen gauza miragarriac*.

guciarequin, *Maria Saindua, Jaun-  
goicoaren Ama, eguizu otoitz gu be-  
catorentzat orai eta gure eriotzeco  
orenean*. ¡Oh cein doatsuac izanenga-  
ren bearden debocione eta atenciona-  
requin baldin errezatzenbadugu arro-  
sarioa! Oh cein fite erreglatucoditez-  
quien guiristinoen costuma tzarrac!  
Nola icusicoguenituzquien bertuteac  
vicioen toquian eta *practica* onac amo-  
riozco ele itsusien plazan.

Fite ezagutucituen Aita S. Domini-  
cac arrosarioaren efetu onac. Cembat  
heretico etzuen convertitu? Cembat  
guiristino atera etziren becatutic?  
Cembat estire asi vici saindu baten  
eguiten? Cembatec eztute eguin  
eriotze saindu bat?

6. Gure Eliza Ama Sainduac icusi-  
ric debocione onec mundu gucian  
eguitendituen gauza miragarriac, bere  
partetic eguindu ahal gucia aberats<sup>13</sup>  
arasteco indulgenciez ala parcialez  
nola plenariez. Sei Erromaco Aita  
Sainduac anitz indulgenciequin  
aberastatudute<sup>14</sup> otoitz saindu au.  
Arrosario partebat erratenduenac ira-  
battendu irur ogoi eta amar mila urte-  
co indulgenciac, eta irur parteac erra-  
tendituenac, hau dá arrosario osoa,  
irabattenditu laur ogoi mila urte, eta  
Maria Sainduaren arrosarioaco Cape-  
ran erratenduenac anitz gueyago.

Agur Maria eta gure Aita baco-  
chan irabattendire eun egun indulgencia.  
Alaber Maria Sainduaren besta prin-  
cipaletan irabattenda indulgencia  
plenaria confesatuz eta comuniatus.

13. Cambiada de *abrats*.

14. Escribe primero *abratstudute*, que luego tacha, y coloca después entre líneas, encima de lo tachado, *aberastatudute*.

irabaztentu<sup>27</sup> irur ogoi eta amar mila urteco indulgenciac eta irur parteac erratendituenac, hau dá arrosario osoa, irabaztentu laur ogoi mil urte, eta Maria Sainduaren arrosarioco Caperan erratenduenac anitz guehiago. Agur Maria eta Gure aita bacochoan irabaztendire eun egunen<sup>28</sup> indulgencia. Alaber Maria Sainduaren besta principaletan irabaztenda indulgencia plenaria confesatuz eta Jesucristoren gorputza errecibituz. Ylabete gucian errezatenduenac irabaztendu indulgencia plenaria confesatuz eta comunicatuz *nhaiduen* (sic) egunean. Ontas landa anitz indulgencia dire irabaztendirenac. Arrosario Sainduaren acabanzan erratendire Virgina Mariaren letaniac, eta Sisto vortz garnac, eta Benedicto ama irurgarnac errazuten aldi bacochoan irabaztendirela verreun egunen indulgenciac<sup>29</sup>, eta Pio Zazpigarnac irur eun egun aldi bacochoan, eta ontas landa indulgencia plenaria Maria Sainduaren vortz besta principaletan oc dire, Concepcione, Nativitate, Anunciacione, purificacione, eta Asuncione, confesatuz eta comunicatuz.

//(pág. 4) Ea veraz, cer errandezquet nic guehiago Maria Sainduaren ohoretan? Adituduzue nola errezatubearduzuen misterio gozozcoac, dolorosac eta gloriosac consideratuz. Adituduzue cer devocione cer atencione eta afetuequin erranbearduzuen arrosario saindua. Orai bada eztut erraten bertzeric, baicic *Deaburac* berac<sup>30</sup> erranzuena hau dá, Maria Sainduaren debocionearen azpian dagona, eta perseveranciarequin arrosa-

27. Corrige *irabaztentu* de un primer *irabaztendu*.

28. Primero escribe *egun*, que luego cambia a *egunen*.

29. Primero escribe *indulgencia*, añadiendo luego la *-c* final.

30. Primero escribe *Deaburu berac*, cambiando luego la *-u* final de *Deaburu* en *a* y agregando una *-c*, resultando *Deaburac* en lugar del *Deaburuac* esperado.

Ylabete gucian errezatenduenac irabaztendu indulgencia plenaria confesatuz eta comulgatuz *nhaiduen* egunean. Ontas landa anitz indulgencia dire irabaztendirenac.

Arrosario Sainduaren acabanzan erratendire Virgina Mariaren letaniac, eta Sisto bortz garnac eta Benedicto Ama irur garnac<sup>15</sup> erranzuten aldi bacochoan irabaztendirela berreun egunen indulgenciac; eta Pio zazpi garnac irur eun egun aldi bacochoan, eta ontas landa indulgencia plenaria M.<sup>a</sup> Sainduaren bortz besta principaletan oc dire, Concepcione, Nativitate, Anunciacione, purificacione eta Asuncione confesatuz eta comuniatuz.

Ea veraz, cer errandezquet nic gueyago Maria Sainduaren ohoretan? Adituduzue nola errezatu bear *duzuen* Misterio gozozcoac, dolorosac eta gloriosac. Adituduzue cer devocione, cer atencione eta afetuequin erranbearduzuen arrosario saindua. Orai bada eztut erraten bertzeric, deabruac berac erranzuena baicic, hau dá, Maria Sainduaren debocionearen azpian dagona, eta perseveranciarequin arrosarioa errezatenduena ez-tela galduco, ala errancion Deabruac S. Dominicari. Saindu onequin asinitzan arrosarioa esplicatzen eta onequin finitucodut. Adizazue...

15. Interpretamos que la palabra se halla dividida en tres partes.



rioa erreztatenduena eztela galduco. Hala errancion Deabruac<sup>31</sup> San Dominicori. Saindu honequin asinitzan arrosarioa esplicatzen, eta honequin finitucodut. adizazue...

Rupensec erratendu, Florenciaco hirian vicicen Benita deitzencen emaztequi escandalosa bat. Hiri artara arribatucen predicatzera Gure Aita San Domingo, curiositatez joaincen aditzera emaztegui hura. Bainan Jaincoac uquitucion viotza eta instantean yoancen Sainduaren gana eta erracion naizela<sup>32</sup> confesatu. San Dominicoc adituzuen, confesatu eta oraino emancion asolucionea, eta penitenciaz emancion Arrosario Saindua. Bainan miserablea bereala itzuli izancen becatura. Sainduac adituzuen eroricela becatuan, eta bereala yoancen emazteque arren gana eta berri berritan confesatuzuen. Egun batez Jaincoac iracutsicion infernua eta han icusicituen anitz arrengatic damnatuac cirela<sup>33</sup>. Bereala icusizuen liburubat non ceuden bere becatu guciac izcribatuac: orduan estonaturic, arrituric bainan confidenciaz beteric yoancen Maria Sainduarenga (sic), eta Mariac ardietsicion penitencia eguiteco dembora. ordu artaric asicen penitencia eguiten, bainan beti oroitzencen liburu artan icusicituen becatuez, eta *ahala* erratencion vere Ama Virginiari *quel* zetzala becatuac liburu artaric; Maria Saindua aguertucizayon eta errancion barcatuac<sup>34</sup> cirela becatu guciac, bainan beti oroitzeco becatuez, Jaincoaren misericordiaz, pasione sainduaz, eta oroitzeco anitz becatu gutiagoequin infernura yoancirela, eta errancion egun artan berean zortzi urteco aur batec infernura yoanbearzuela becatu batengatic.

7. Rupensec erratendu, Florenciaco Irian vicicen *benita* deitzencen emaztequi gazte escandalosa bat. Iri artara arribatucen S. Domingo predicatzera, gazte hura curiositatez joancen aditzera; eta Jaungoicoac uquitucion viotza eta instantean joancen sainduaren gana eta errancion nahi zuela confesatu. S. Dominicac adituzuen, emancion asolucionea, eta penitenciaz emancion arrosario saindua, etzion bertzeric eman.

//(pág. 4) Bainan miserablea bereala itzuli izancen becatura. Sainduac adituzuen eroricela becatuan, eta bereala joancen emaztequi arrengana eta berri berritan confesatuzuen. Gau batean eracutsicion Jaungoicoac infernua eta an icusicituen anitz arrengatic damnatuac cirela. Bereala icusizuen libru bat non zeuden becatu guciac izcribatuac. Orduan estonaturic, arrituric bainan confidenciaz beteric joancen Maria Sainduaren gana, eta Mariac ardietsicion penitencia eguiteco dembora.

Ordu artaric asicen penitencia eguiten, bainan beti oroitzencen liburu artan icusicituen becatuez, eta ala erratencion bere Ama Mariari *quen* zetzala becatuac liburu artaric: Maria Saindua aguertucizayon eta errancion barcatuac cirela becatu guciac; bainan beti oroitzeco becatuez, Jaungoicoaren misericordiaz, pasione sainduaz, eta oroitzeco ecen anitz becatu gutiagoequin infernura joancirela, eta errancion egun artan berean zortzi urteco aur batec infernura joanbearzuela becatu baten gatic.

31. Está claro *Deabruac* (-br-), si bien la *r* parece haber sufrido un repaso.

32. Cambiada de *naizuela*.

33. Primero escribe *zirela damnatuac*.

34. Escribe primero *barcaturic*.

## IV

4.<sup>a</sup> *Qui me invenerit inveniet vitam, et auri salutem á Domino. Prov. 8. 35. Bilatzen naunuenac (sic) causituconau, et Jaungoicoaganic izanendu vicitzeo gracia.*

Jaun prestubat joatendenean mundu ori barna, eta baldin pasatzenbaditu cembait egun familia on batean, azquenean despeditzendirenean erratendiote Jaun ari: Jaun, placer baldin baduzu utzatu billete huntan izcribatuac zure icena eta icengaña edo deitura, zutaz oroitu arazteco: alchatzendute billete hura eta conservatzendute gauza andi bat bezala. Guero maiz galdetzendute Jaun prestu hartaz, eta ocasione gucietan laudatzendituzte arren prudencia, eta modestia, arren educacio fin eta prestotasuna; itz batez, ezdezaquete utzi anztera.

Orai bada pasager edo estranger bat bezala etorria naiz zuen gana, eta baldin orai arteo aditubadituzue arrosario sainduaren laudarioac, eta cein confidencia andiarequin joanbeardugun Jaungoicoaren Amarengana; eta ceren icusibaitut zuen baitan asistencia eta debocione andibat; orai azquen instruccio- ne huntan nahidizuet utzi izcribatuac zuen viotzetan, ez ene icen eta icengaña edo deitura, bainan bai Maria Sainduarenac, beti oroitzeco Ama andi onen laudarioz eta bertutez, eta artacotz utzicodauzquitzuet aviso cembait obequiago ohoratzeco eta maitatzeco Jesusen eta gure Ama Maria. Bainan lenago errandezagun *Agur Maria*.

1. Maria Virginari errendatu daitezquien ohore gucien artean, erranuen andiena eta baliosena cela arrengana maiz joatea eta beraren laguntza escatzea. Eta hau gucia ¿cerequin eguindezaquegu Agur Maria maiz erranez baino obequiago? Salutazue, erratendu Tomas Kempisec, Aingueruaren salutacio- nearequin, ceren voz hau aditzendu placer andi batequin.

2.<sup>a</sup> pág.

Andredena Mariac errancion Santa Metilderi, niorc etzuela salutatuco obequiago nola Agur Maria erranez. San Bernatec beti zeucon aoan agur Maria, eta egun batez Maria Sainduaren ecanza edo imagen batec errancion: *Ave Bernarde*; Agur Bernat. Alano Doatsuac segurtatzendu, Agur Maria erratendenean ala nola cerua bozcariatzenden, Deabrua icaratzendela eta *espa- catzendela (sic): Caelum gaudet, Satan fugit, cum dico Ave Maria*.

2. Orrengatic lembicico avisua izanenda noiz erranbearduzuen Agur Ma- ria. goicean eta arratsean oyara sartu baino len eta oyatic jainqui ondoan belaunico jarriric Maria Virginaren Potreta edo imagen baten aintzinean erran bearditutzue irur Agur Maria; otoitz chipi onequin: *Zure concepcione garbia gatic ¡O Maria! eguintzatzu garbi ene arima eta gorputz gucia*.

Guero escatu beardiozue gure Amari bezala benedicionea, ala eguiten zuen beti San Estanislao, eta guero ezartzenda Maria Ama divinoaren mantuaren pean, eta confidencia oso batequin escatzenzayo bere gracia ongui pasatzeco gaua eta eguna, eta beinere ez becatuan erortzeco.

Untacotz oyaren ondoan iduqui bear dá beti Maria Sainduaren imagina eder bat. Orobat beti erranbearda Angelusa vere irur Agur Mariarequin

goicean, eguerdian eta arratsean. Ala eguitenduena (sic) irabaztentu eun egunen indulgenciac aldi bacochoan eta ilabetean indulgencia plenaria bat confesatuz eta comuniatur, ala declaratuzuen Erromaco Aita S. Benedicto Amairurgarnac.

Ontas landa erranzuen irabastendela ilabetean bein indulgencia plenaria confesatuz eta comuniatur arratsetaco angelusa finitzean erratenbada *De profundis*, edo gure Aitabat belaunico purgatorioco arimarentzat. Lenago ezquila jotzenzutenean guciac belaunicatzen Angelusa errateco; orai anitz alquetzendire: bainan S. Carlos Borromeo etzen alquetzen non nai belaunicatzerá eta oraino jaustencen carrozatic edo zalditic errateco.

S. Alfonso Ligorioc erratendu presuna bat etzela belaunicatzen Angelusan lazaqueriaz, eta icusizuen nola Elizaco Dorrea apaltzencen irur ezquilaco seinaletarat, eta adituzuen voz bat erratenciola: Veguira, zuc eguiten eztuzuna eguitendu creatura centzuric eztuenac.

3. Benedicto amalaurganac (sic) declatuzuen (sic) Pazcoaco dembora gucian erranbeardela *Regina Caeli letare* (sic le-), eta irabaztendirela indulgencia berac: dembora huntan gucian erratenda chutic: bertze urteco demboran erratenda belaurico angelusa; bainan larumbat arratsaldetic igande arratsalderaino erratenda chutic Pazcoco demboran bezala. Jesusen Amaren debotac beren partetic eguitendute ahal gucia Maria ohoratzeo eta eztute uzten orduric laudatu gabe. Ala bada aditzendutenean erlojua edo orenloyua jotzenduela orduac salutatzendute Agur Maria erranez. Alfonso Rodriguezec ordu gucietan salutatzenzuen, eta gauaz orduac jotzenzuenen Aingueruec<sup>1</sup> idatzarri araztenduten.

Nic eztaquit emen practicatzenduten edo ez; bainan bertze anitz toquietan errandezquet ordua aditzendutenean aldi oro edo echean, edo campoan, bat astendela Agur Maria erranez eta bertze guciac erresponditzendutela. Echetic ateratzean eta echerat itzultzean salutatu beardugu Agur Maria erranez.

### 3.<sup>a</sup> pág.

Eta errencotratzen (sic) edo arquitzen dugunean Maria Virginaren Potret edo imagina cembait, burua apalduz erran beardiogu Agur Maria: eta artacotz zuen echetan eta camberetan ezarri bearditutzue Andre dena Mariaren imagina ederrac salutatzeco ocasione gueyago izaiteco. Maria Sainduaren Potreta edo imagina chit ederrac causitzendire Erromaco carriquetan, echetan eta oraino vidietan beren arguiequin presuna debotac ezarriac.

4. Vigarren avisua dá Maria Virginaren bestac celebratu bearditutzuela beren bederatzi urru<sup>ne</sup>quin ahal maneran. Santa Geltrudic icusizuen egun batez Virgina Mariac bere Mantoaren azpian arima tropa andibat ceucola, eta jaquinduzuen sainduac arima ec preparatzen<sup>2</sup> esercicio eta bertutezco practiquequin Maria garbiaren cerurat alchatzeco eguna celebratzeco. Besta arribatu baino len azquen bederatzi egun etan<sup>2</sup> erratenda bederatzi gure Aita, Agur Maria eta gloria Patri, visitatzenda albadaique aldareco sacramendua eta Maria Virgina: Iracurri liburu batean eta guero consideratu artan: eguin cembait mortificazione Aita izpiritualaren permisionarequin. besta egunean

1. Parece estar cambiada de *Aingueruac*.

2. Escribe *egun etan*, en dos palabras, no siendo claro si la segunda es el adjetivo demostrativo o simplemente la desinencia de la declinación.

confesatu eta comuniatu, eta azquenean ofrecitu viotza, arima, gorputza eta escatu gracia Maria Sainduaren vertuteac ardiesteco.

Yrur garren avisua dá arrosario saindua erraitea egun•oro albadaique belanico Maria Virginaren aintzinean consideratzen Misterioac adituduzuen bezala. Andre dena Mariaren anitz debotac barurtzendute larumbatetan eta anitzec ur eta oguiarequin bacarric. Nic consideratzendut laborariec ezdezaquetela barurtu; bainan ofreitzendire vigilia, beroa, otza, gosea eta egarría; mortificatzendire mia, veguiac, eta ceinai curiositate niorc ezagutu gabe. Anitzec larumbatetan eguitentuzte (sic) caritateac pobrei eta deliberacionea dute ez deusere ucatzeco.

Ala eguitenzuten S. Gerardoc eta Aita Martin Gutierrezec; ala S. Eberardo Apezpicuac, eta Alesandro Alesec. S. Gregorioc erratendu Roman vicicen S. Deusdedit zapatina, onec aste gucian irabaztenzuen larumbatean ematenzuen pobrei; bainan, oh gauza miragarria! Arima saindu batec icusizuen nola ceruan eguitenzuten Yauregui eder bat larumbatetan bacarric zapatain arentzat; eta norc eztu eguinen cerbait Maria Sainduaren ohoretan?

5. Lau garren avisua dá visitatzea Mariaren Potretac edo Imaginac Elizetan edo echetan. Mundu huntan maitatzendirenac visitatzendire eta ala aguertzendute beren amorioa ¡Oh eta cembat aldiz amorio istsu (sic) gaistoa! Bainan eztute eguiten gutiango Maria Sainduaren debotac: hoc visitatzendute elicetan eta arregana joatendire afetu eta confidencia andi batequin. Eztire onequin contentatzen, eguitentuzte aldareac beren echetan, edertzendituzte lore eta gauza baliosequin, eta arren aintzinean eguitentuzte otoitzac, erratendute arrosarioa eta cantatzenituzte Jesusen Amaren letaniac. Oraino gueyago eguitendute Andre dena Mariaren debotac. Ala nola mundu tarrac<sup>3</sup> eben buruac distingatzeco ezartzendituzten beren seinaleac; guisa berean Virgina garbiaren debotac ezartzendituzte beren seinaleac bertze gucien ganic distingatzeco.

4.<sup>a</sup> pág.

6. Batzuec beztitzendute Carmengo abitua edo escapularioa, defentsa, edo cutuna<sup>4</sup> bertze batzuec concepcionecoa, batzuec Mercedecoa eta bertze batzuec Virgina Dolorecoa, eta manera huntan distingatzendire bertze gucietaric, beren pensamendu, acione, itz eta obretan. Ene viotz guciarequin otoiztenzaituztet beztidezazuela Andre dena Mariaren Abitu bat. Jaungoicoaren Amac errancion Simon Stoc<sup>5</sup> Doatsuari carmengo Abituarequin iltzencena etzela damnatuco; eta Maria Saindua berac errancion Aita Saindu Joanes ogoita bigarrenari, baldin purgatoriora joaten baciren lembicico larumbatean ateracocituela andic. Eta hau gucia confirmatuzuten Alesandro bortz garnac, Clemente zazpi garnac eta Paulo bortz garnac.

Abitu saindu hequin irabaztendiren indulgenciac nombre gabeac, edo conta eztaitequenac dire. Halaber ene viotz guciarequin otoiztenzaituztet sardaitezlela (sic) confradia batean edo arrosariocoan, edo aldareco sacramenducoan, edo bertzebatean, eta guisa huntan zuen arimac bertzeric eguin gabe azquen momuntu artan causitucodira *abrasturic*. Bainan gauza gucien ganetic

3. Parte en dos la palabra *mundutarrac*.

4. Coloca después de *Carmengo'abitua*, entre líneas, *edo escapularioa, defentsa, edo cutuna*.

5. Escribe *Stoc* en lugar de *Stock*.

Jaungoicoaren Amac asieran erranuen bezala, estimatzen duena eta atsegin gueyagoarequin errecibitzen duena dá maiz arren joaitea. Hau dá azquen avisua bainan principalena. ¡Oh cein doatsua izanenden Jesusen Amarengana joatendena bere necesitate gucietan!

7. Ea beraz, gure acione gucietan dela izpiritualetan nola baitire otoiça, confesionea, comunionea, meza, lectione izpiritualea goacen beti Maria Virginarengana: gorputzeco acionetan nola jatean, edatean, ló eguitean, eta bertze necesitate gucietan goacen ceruco erreginarengana, eta asiditzagun obra oc gucioc Maria Virginarenen icenean Agur María errañez, eta guisa huntan etsayac eztu podorioric izanen gu galarazteco.

¿Cer eztuzu esperatubear baldin zu zure necesitate gucietan joaten bazara Jaungoicoaren Amarengana eta salutatzen baduzu maiz Agur M.<sup>a</sup> errañez? ¿Cer gracia andiac ezditu ichusibear (sic) zure ariman Jesusec baldin ordu gucietan deitzen baduzu bere Ama garbia Agur Maria errañez? ¿Cer laguntzac ezditutzu ezagutu bear Andre dena Mariaren bestetan preparatzen bazara bederatzi urruneco debocionearequin, eta confesatzen eta comuniatzen bazara bere egunean? ¿Cer indarrac ezditu artuco zure arimac egun oro familian errezatzen baduzu arrosario saindua? ¡Oh eta nola atseguinez betecoden zure arima visitatzen baduzu maiz Virgina Maria, eguiten baduzu bere ohoretan cembait caritate, obra on edo cembait mortificacione! Oh! eta zuc bestitzen baduzu Maria Sainduaren Abituren bat, nola conservatucoduzun garbitasuna, nola imitatucodituzun beraren bertuteac, eta azqueneco momentu artan causitucozaren, zure ustean deusere eguin gabe, consolamenduz, tranquillitatez eta gozoz beteric Jaungoicoarengana joateco!

Ea bada, Tomas Kempisec erratendizu: consolatu nahibaduzu zure miserietan; urbilzaitzeta Maria Sainduarengana, deizazu, ohorazazu, otoizazu, alegratzeta M.<sup>a</sup> Virginarequin, ibilzaitzeta beti arren azpian; eta ala eguiten baduzu, Mariac ardietsicodu bere seme Jesusen ganic gracia ongui vicitzeco eta gracia ongui iltzeco...

## V

*Pensamiento de la muerte*<sup>1</sup>

*Memorare novissima tua et in eternum (sic) non peccabis. Eccli. 7.10.*  
*Memento homo, quia pulvis es et in pulverem reverteris: Gen. 8.v. 19.*

Oroizaite errauts zarella, eta errautsara itzulibearduzula. Oroizaite ilbearduzula eta eztuzu eguinen becatuic<sup>2</sup>.

Eta eguia ote dá ecen guizona Jaincoaren imagina edo echura perfeta izanez gueroz, creatura gucien artean ain perfeta, ain noblea edo aitun semea, ain preciotsua eta baliotsua, eguia da il beardueta eta auts eta errauts escualdi batean itzuli eta guelditu beardueta? Bai, ala da. Hau dá gure Jainco justo, eta andiac nasbagnetuzuen<sup>3</sup> edo emanzen sententia guizon desobedient eta desleyal arren contra han lureco Parabisoan, ceren esquerbageró<sup>4</sup> ibilli izancen. Jardin edo baratze eder eta gucíz aberats<sup>5</sup> artan, ezarrizuen Jaungoicoac lembicico guizona cerbitzatuzezan bere Creatzaileari<sup>6</sup> bezala; bainan Adan gure Aitac orgüiloiz beteric ucatucion obediencia eta alchaturcen bere Jaun eta Creatzailearen contra; orrengatic bada izancen camporatua edo desterratua lecu amultsu edo gozotsu artaric. eta Jaincoac ezarrizuen Aingueru Querubin bat Parabisuco portan suuzco ezpata batequin iñor sartzera ez uzteco.

Orduan bertan sartucen eriotza munduan guizonaren becatua castigatzeco; ¡Oh becatu madaricatua! Gure Jaincoac emancion guizonari bearcituen gauza guciac ezagutzeco, maitatzeco, serbitzatzeco bere Jauna mundu ontan eta guero doatsua izaiteco ceruan Aingueru gucien compainian; baña guizonac gure Jaunari baño gueyago sinetsicion Deabruari errancionean *nequaquam morte morieris*: etzara ilen: Orrengatic aditu izanzuen izigarrizco sententia hura: *pulvis es et in pulverem reverteris*: lurretic ilquizara, eta lureco errautsera biurtuozara. Bai, n. a, beti biciceco pentsamentuac sartu izanzuen munduan eriotza; bada eriotzaren pentsamentuac indarra eta vertutea badu alcharazteco eta conservatzeco gure vici eternala. *Hau... lenago... Agur...*

1. Guizonaren bicitza<sup>7</sup> naturala niorc ezdezaque dudatu gauza andia eta miragarria dala, eta bereciqui edo particularqui juntatzenbazayo noblecia, odol garbia, ondasunac, edertasuna, eta mundu ontan aimbat estimatzendiren bertze gañeraco gauza guciac; ¡Oh cein doutsua (sic)<sup>8</sup> den presuna hura! ala

1. Esta frase la ha puesto al margen izquierdo de la página, en el ángulo superior izquierdo. A la derecha de esta frase, entre la misma y el primer texto latino, o sea, *Memorare...*, ha escrito *La Iglesia*.

2. *Oroizaite ilbearduzula...* es la traducción del primer texto o cita latina. Pero primera cita sólo en el espacio, pues la otra fue escrita antes. Por otra parte, la traducción de esta frase que estamos comentando está escrita con una tinta que no aparece más en ninguna parte del sermón, y que sólo se usa en la palabra *Olibetaco*, las dos veces que se repite, en el Sermón II, p. 1, párrafo 3.

3. Encima de *nasbagnetu*, entre líneas, pone su traducción *fulminó*.

4. Encima de *esquerbageró*, entre líneas, da su significado *ingratam<sup>te</sup>*.

5. Primero escribe *abrats*, que inmediatamente cambia a *aberats*.

6. Escribe primero *Creatzaile* y añade luego, entre líneas, *ari*, resultando *Creatzaileari*.

7. No estamos seguros si *bizitza* está con *b-* o con *v-*.

8. No hay duda alguna sobre la lectura de *doutsua*. Pero en este mismo párrafo se da dos veces *doatsuec*, y en el siguiente vemos *doatsu*.

diote munduan. Bainan hau gucia eztu (sic) comparacione, ezta deus Jaincoaren gracion vicidenarequin. Orengatic erratendu S. Tomasec: *Gratia quam in presenti (sic) habemus etsi non sit aequalis gloriae in actu, est tamen aequalis in virtute*: erran nahidu, arima justoac munduan eramatenduen vicitza sortizgaraya edo sobrenaturala bardin (sic) edo iguala dala, ceruan daudenerequin: ceren Doatsuec ceruan laudatzenbadute gure Jauna, hau eguitendu justoac lurrean ere, an maitatzenbadute, emen ere maitatzendu justoac bere viotz guciarequin, an icustenbadute bere beguiequin, emendican icustendu arima justoac fede sainduaren beguiequin: ezta bada bertze banaitá edo diferencia, ecen doatsuec ezdezaquete galdu bere Jainco Aita, eta arima justoa (sic) bai:

Eta vicitza doatsu hori irauntzeko edo conservatzeko mundu miserable ontan ¿eztugu izanen erremedio bortitz eta azcarrbat? bai, eta hau da eriotzaren oroitza. Becatuac sartuzuen edo ecarrizuen eriotza mundura, becatutic bada urrun egoiteco erremedio andiena eta obenena eriotzaren oroitza edo memoria dala, erratendigu Ezpiritu<sup>9</sup> Sainduac: *Memorare novissima tua, et in aeternum non peccabis. Ecc. 7. 40*. Oroizaite il bearduzula, eta eztuzu becuric<sup>10</sup> eguinen.

2.<sup>a</sup> pág.

2. Ypentzatu edo suposatudezagun mundua bere vanitate, anditasun eta eroqueria guciequin presentatzendela erori-arazteco zuri mundutarrac seguitzenduten leguea: baldin zure gogoan edo memorian maiz consideratzenbaduzu eriotzaren gañean: ez<sup>11</sup> etzara erorico munduco eroquerietan: *non peccabis*. Ala dio Izpiritu Sainduac. Ylquidaela infernutic Deabrua berequin dituen lagun eta Demonio guciequin, eta etorridaela tentatzera bere indar eta enganu guciequin; gueyago oraino, edadetzala munduan eta infernuan dituen soca, laquio eta cate guciac erori arazteco becatuan gogoz, itzez edo obraz: ez, etzara erorico oroitzenbazara il bearduzula: *non peccabis*. Alchadaela araguaia bere loiqueria, lizunqueria eta amodiozco atseguin eta placer guciequin, ez, etzara erorico becatu itsusi eta lotsagarri ortan, baldin pensatzenbaduzu maiz eta serioqui eriotzeko azquen horduan: *non peccabis*: erratendu Izpiritu Sainduac ¡Oh cembat... Zambri eta Cozbi: Num. 25. 14.

Bai eguiazqui, eriotzaren oroitza orrequin aisa mespreciatzenditu munduaren, Deabruaren eta ariguiaren tentacioneac anitz eta azcarrac izanican ere, dio S. Geronimoc *memorare novissima tua...* fisazazu zure buruan, zure biotzean urbil duzula eriotza, eta zure pentsamendu guciac izanendire zuce-nac, zure itzcuntzac, zure solasac inocentac, zure tratu eta contratuac garbiac, justoac; eta azquenean zure lan edo obra guciac izanendire Jaincoran (sic) presencian chit onac: *in omnibus operibus tuis memorare...* Bai, zure eguiteco eta afera orotan present, zure beguien aitzinean contu eguinazazu duzula eriotza, *et non peccabis*: eztuzu eguinen becatu.

3. Guizonac bere baitan sentitzendituen tentazionen artean andiena, azcarrana eta calte gueyago eguitenduena arimetan da araguzco becatua; ceren onec itsutzenditu guizonac eta itsuturic eramatenditu nola nahi, eta nahiduen

9. Creemos que pone *Ezpiritu*, con z, no habiendo duda alguna sobre la *E*- en lugar de la *I*- que suele ser lo corriente.

10. Cambiada de *pecuric*, con *p*-, con la misma tinta y pluma, por tanto inmediatamente.

11. Así se halla *ez etzara*, apareciendo de nuevo en este mismo párrafo *ez, etzara*.

lecura: ala ere eztu errestatuco becatura bere enganü faltso eta *guzurrezcoequin*, baldin oroitzenbada ildaiquela becatuan bertan; ala erratendu S. Zenon Apezpicuac. Eta S. Bernartec segurtatzendu, eriotzeco oroitza ez choilqui dala erremedio eraguillea<sup>12</sup>, bai eta ere gucietacoa; cergatic orgüilosa humiliatzen-du, coleratia edo iracundetsua paquetzendu, eztitzendu ere, andinaya apaltzendu eta mundu ontan diru eta ondasun biltzeco egarri hura iltzendu, itotzendu eriotzeco memoria dio S. Bernartec: *Singulare remedium contra omnia mala est mortis cogitatio*. Erremedio bacarra vicio gucien contra.

Orrengatic Izpiritu Sainduac erratendu: guizona causitzendenean osasun bizcor batean, bere indar osoan, ondasunez echea beteric, familia andibaten presencian emazte, seméz<sup>13</sup> mutilez eta zerbitzariz inguratua, finean causitzenbada arraina bezala urean, gucienganic estimatua, eta maitatua: orduan bada gueyago oroitu beardu, ilbeardula<sup>14</sup>, eta munduan guelditucodirela dituen gauza guciac: *vanitatis arguentur praeterita. Ecclesiastes, 11. 8*. Bai, orduan eriotzeco puntuan ezagutzendire munduco vanitateac. Orduan aguertzendire gauzac diren bezala.

Guisa berean bada, erratendu S. Tomasec, eriotzeco pensamentuac arguitucodauzue munduac estimatzen, maitatzen eta seguitzendituen gauzac ez tirela vanoac eta eroqueriac<sup>15</sup> baicic. *vanitatis arguit omne quod est in m(undo)*<sup>16</sup> ¿Cergatic usteduzue mezpreciatu eta utzidituztela munduac ofreitzendituen gozoac, eta atseguinac, eta erretiratu lurreco zocobatera an vici ilumbaten pasatzera? ¿Norc elquiarazditu beren echetariac aimbertzec guizon eta emaztequi beren gaztetasunean eta adisquideac, aideac, aurrideac eta aitac utziric sartu conventubatean han pasatzeco edo eragaiteco bere vici gucia? ¡Ah! eriotzeco memoria, il beardutelaren oroitza izanda equen predicatzailea.

### 3.<sup>a</sup> pág.

4. Yracurrietatzue historioac eta icusicoduzue nola munduco aberatseen<sup>17</sup> eta andieen semeac eta alabac, ala nola Principen eta Erreguerenac ere utziric beren borondatez Yaureguiac, ondasunac, ezcontza<sup>18</sup> chit aberatsac<sup>19</sup>, utziric munduco gustu guciac, oraino Jaincoaren legue sainduac permetitzen<sup>20</sup> eta cilegui dituenac, autatudutela erreligione ertsi eta garratza non bicibaitire pobretasun<sup>21</sup> andian soñecoetan edo habituetan eta edarian janarian<sup>22</sup>; icusicodituzue ecen batzuec barurtzendutela casi urte gucian, bertzebatzuec eztutela aragua yastatzen, jaiquitzendirela gauaren amabieta-coan, beren gorputzac puscatzendituztela cilicio eta disciplinequin<sup>23</sup> eta ala ere

12. Encima de *eraguillea*, entre líneas, escribe *eficaz*.

13. Escribe primero *seméz* eta *mutilez*, tachando luego *eta*.

14. Ha habido alguna vacilación en el puesto que ocupa la *l* de *-la*, pero ahora hay que leer *ilbeardula*.

15. Leemos *eroqueriac*, con una pequeñísima interrogante sobre la *o* de *-ro-*, que no creemos sea una *a*.

16. Esta voz se halla comida, no apareciendo más que el comienzo de la *m-*.

17. Escribe primero *abratseen*, que cambia inmediatamente a *abratseen*.

18. Tacha *ezteyac* y escribe encima de esta voz, entre líneas, *ezcontza*.

19. Escribe primero *abratsac*, cambiando enseguida a *abratsac*.

20. Creemos que escribe *permetitzen*, dudando si no será tal vez *premetitzen*. Ha habido corrección en las letras segunda y tercera de la palabra.

21. Escribe primero *pobrecia*, que luego cambia a *pobretasun*.

22. Encima de *janarian*, entre líneas, ha colocado *edarian*.

23. Primero escribe *cilicioz* eta *disciplinez*, cambiando enseguida.



beti content, beti bozcarioz beteric beran viotzac. ¿Nondic sortu ote da aldatze edo cambiamendu<sup>24</sup> hau? Oh! Eriotzaren pensamenduac eguitenditu miraculo hec. ¿Norc usteduzue *betatucituela* Egiptoco eremuac aimbertz penitentez? Eztuzue cer dudatu iltzearen presencia edo oroitzapenac. Oraino zuc ere, e. a. m. aditu ezqueroz icigarrizco predicu hura, iracurri ezqueroz etsempro espan-tagarri hura, eta icusiric guizon andi eta aberats<sup>25</sup> arrec eguinzen iltze icaragar-rizco hura, etzinuen sentitu zure viotzean eguiac urriquirimendu bat? eta jaquin ondoan urlia ta sandia il izandirela beren gaztetasunean confesatu gabe. Ah! etzinuen orduan eguin confesione general bat? bai ala da. ¿Eztzinuen eguin orduan deliberacione osobat uzteco gueitea<sup>26</sup> edo gueitia, dantzac, ocasione tzarrac, izcuntza desonestac? ¿Eztzinuen erraten orduan munduari zerbitzat-zenduenac erobat dela? ¿Nola bada eztuzu seguitu?...

5. *Quid istud, quaeso, quid istud est?* Cerda hau? Cerda hau? ala galdegui-tendu San Euquerioc; eztute guizonec gauzabat hain segura eta eguiac nola iltzea, eta ala ere ezta aurkitzen gauzabat hain aztua nola iltze bera. *Nihil ita quotidie homines ut mortem vident, nihil ita obliviscuntur ut mortem.* Eztugu icusten egunoro ilerriac, obiac non dauden ehortziric gure aideac, anayac, gurasuac... eztugu icusten gure beguiequin nola guelditzendiren ileen gor-putzac? eta hau bedere esta asco izanen zure vici gaistoa beingoan uzteco? ¡Oh cembat biurtudire beren viotz guciarequin Jaincoarengana ilbaten gorputzaren espantagarri itsustasuna icusiezqueroz!

¿Cergatic uzteduzue (sic) convertitucela Santa Margarita Cortonacoa? Oh! icusizuenean bere galantaren gorputza itsusia, beltza, usteldua eta arrez beteric, eta oraino ordu erdibat etzen pasatu ilzutela barrancu edo cilobatean bere eche ondoan. Oh! infernuan da, infernuan da ene galanta<sup>27</sup>, erratenzuen Margaritac. Joancen bere Aita gana, seme Prodigoa bezala, barcamendu esca-tucion, eguinzen confesione generalbat. Artuzuen S. Franciscoren habitua, eta asicen penitencia eguiten.

Cergatic uzteduzue abandonatu eta desamparatucituela S. Francisco Borjacoac bere ondasun andiac, aideac, semeac eta Españaco *jaunditasuna*, eta sartu, Jesuiten erreligionean? Ah! ceren icusizuen bere Erreginarean gorputza icaragarizco itsustasunean. Ontan guelditzendire munduco anditasunac? Oh! Eta non da lenahoco (sic) edertasun hura? non zure gracia? Guisa berean, S. Silvestre Abadeac icusizuenean bere lagun eta aidebaten gorputza guziz espan-tagarria, ala itzeguinzen: *Ego sum quod hic fuit, quod hic est ego ero.* Orai ni nahiz hau izancena, guero ni izango nahiz orai hau dena. Jaincoaren gracia unquituzuen bere viotza hain bortizqui, ecen han bertan *adiobat emanic munduari*, utzicituen Osimoco Catedralean Calonge bezala cituen ondasun eta ohore denac, eta joancen Joan Batista beza (sic) eremu, desertubaterat, eta han eramanzuen vicitza penitentea, han sandutucen, eta handican joancen beticotz cerurat. Oh eriotaren (sic) oroitzapena!

4.<sup>a</sup> pág.

6. Atoz, e. a. m. eztuzu sentitzen, eztuzu aditzen predicatzendutena ileen gorputzac. Eguiacqui, erratendu S. Agustinec, aditu nahi baduzu predicatuco-

24. Tacha *cambien*du y escribe encima, entre líneas, *cambiamendu*.

25. Primero escribe *abrats*.

26. Encima de *gueitea*, entre líneas, escribe *lujo*.

27. Creemos, pero sin estar seguros, que detrás de *galanta* hay un signo de interrogación.

zaute ezurr idortu oriec. *vere si ipsa ossa arida audire volueris praedicare poterunt*. Eta cer predicatzen dute, cer erratzen dute? *¿Quid nobis profuit superbia? aut divitiarum jactantia quid contulit nobis? Sap. 5. 8*. Bai, oyuca erratzen dute burezurrac, esqueletoac *¿cer prochu ateratudugu orguiloaz? ¿Cer on ecaridigute (sic) aimbertze neque eta icerdiiz (sic) bilduguintuen ondasun andiac? quid?* *¿Cer prochu ateratudugu aimbertze otoruntza<sup>28</sup> jatequeta, paseyo, eta teatroco diversione eta dantzaetaric? ¡Ah! gure ontasunac gastatutugugu munduco modac seguitzeagatic, bagatela edo deus eztiren gauzetan! Orai ezagutzendugu galdudugula dembora, eta gure faltaz, gure oguena edo culpatic galdudugula seculacotz gure arima, ceruco gloria, gure Jaincoa. ¡Oh! nos insensati!* *¡Oh gu ero tzarrac! ¿Quid profuit nobis?* Cer irabaciac izantugugu gure gustuez, alferqueriez, eta mundutar itsuec maitatzen dituzten gauzac jarraitu edo seguitzeagatic? *Erravimus á via veritatis*. Ah! Utseguidugu zucen yidea, apartatugara eguiacoz videtic. Hau predicatzen dute infernuaren erdian dauden esqueleto, eta ezurr gogorr, idorr eta casco orien arimac. *Quid profuit nobis?*

7. Eta zuc eztuzu aditu nahi? Eztuzu icasi nahi erraten eta predicatzen dute-na? bada hec oro condenatzen dire, ceren bici gucia iragantzuten ilbearzutela oroitu gabe. Oroizate maiz eztela urrun zure eriotza, eta guisa ortan beti izanenzara preparatua Jaincoaren presenciarra joateco: *Memorare novissima tua et in aeternum non peccabis*. Arratsetan oyara joan baino lehen, edo oyan berean oroizate bearbada eztuzula pasatuco gauá ilgabe *¡Oh eta cembat eta cembat joandire osasuna oso eta azcarbatequin errepausatzerá eta biramunean arquituzte eternitatean! ¡Oh cembat beren becatuan! batzuec beren cartequin escuan topatuzte eriotzarequin: bertzebatzuec ebatsizutenarequin bizcarrean causituzte Jaincoaren jujamenduan:*

Eta dantzetan ere cembat (sic) causituzte beren azquen eguna? Ay ene! nic badaquit non ilcen emaztequibat dantzari cegolaric, eta Apeza, nere adisquidea, laisterca joancen bainan alferric; bertze mutil gaztebat canta desonestabat finitugabe ilcen. Oh! nola usteduzue gueldituzte dantzari lagunac? Cinez lotsaturic eta beldurturic ichil ichila joanciren beren echetarat. Baltasar Erreguearen arima jatequeta, edo afari andibatetic jautsicen infernura: Faraon bere soldado guciequin beticotz eroricen infernua (sic), ustezuelaric atzemanbearzuela Israelgo populoa.

8. Goicetan ain fite nola irazarrican, oroizate menturaz eztuzula pasatuco eguna ilgabe; orai nic aimbertze<sup>29</sup> maitatzen dut ene gorputza eta bereala izanenda arreen janaria, edo hazcaria. Oh! pentsamendu onec indar andia du Jaincoaren gracion arimac conservatze. San Pierres Damianec bazuen Fraide lengusu edo cusinbat eta izcribatucion Deabrua etortzen denean tentacione itsusiequin ecarri ezazu zure memoriara ilbaten gorputza usteldua, arrez betea, ecin sufritudaitequien usain gaistoagatic, eta erranzazu: emen geldituzte munduco eta gorputzeco gustuac? *¡Oh itsutasuna ¡oh guizonaren eroquería! ala lotsatzen dituen etsai guciac, eta bere biotza gueldituzte baque saindu batean. ¡Oh iltzearen memoria, cer on andiac ecartzen digu! (sic) Mespre-*

28. Coloca *otoruntza* entre líneas, indicando que debe situarse entre *aimbertze* y *jatequeta*, y a la derecha de *otoruntza*, también entre líneas, escribe *banquete*.

29. Creemos que hay que leer *aimbertze*, con *-nb-*, pero muy probablemente la primera redacción es con *-mb-*. Sólo que parece que en un principio se olvida de la *a-* inicial, que la pone después y transforma en *i* parte de la *m* del *-mb-* primero.

ciatzen araztendigu munduco eroqueric, eta ezartzen gaitu vide zuzenean gure arima salbatzeko.

Ea beraz, ¿norc utzicodu artugabe erremedio hau? norc eztu maiz oroitu bear iltzearequin acabatzendirela gustuac, placerac, ondasunac, adisquideac enfin gauza guciac.

## VI

+

*Juicio Particular.*

*Omnes nos manifestari oportet ante Tribunal Christi ut referat unusquisque, propria (sic) corporis, prout gessit, sive bonum, sive malum. 2.<sup>a</sup> ad Cor. 5.v. 10.*

Gauza triste eta icaragarria bada ere gorputz eta arimaren artean eriotzac eguitenduen apartamendua, icaragarriago ta tristeago dá, yuyamendu justo hontan bertuteric chiquien ta peccaturic arinenac ere esaminatu eta agurtu (sic) bear izatea<sup>1</sup>. Jaincoaren aguente, edo legue batengatic gucioc bein il beardugu, gorputza emen utzi ta arimac joan beardu; baño, nora? fedec erratendigu Jesucristoren tribunalera, bacoitzac bere obra on edo gaisto eguidituen gucien contu ematera. *Omnes nos...* Eguia andia, escapuric eztuena: Adandican onerainoco guciac provatu dutena, ta aurreraco guciac ere icusico dutena. Yuyamendu particular onen gainean itz eguitera eldunaiz bada non eguitenden eta nola eguitenden: Orduco cargutzaz (sic) orai instruituric, demboraz segura zaitezten. Baño lehenago... *Agur Maria.*

1. Ygaro iragan<sup>2</sup> edo pasatu ondoan urte batzuec munduan guizona, pentsatzen eztuelaric gaitz batec azpian artzendu, eta momentu oro argaltzen doa, eta ecertaco ez bat eguinic indarric gabe guelditzenda. Dolorezco erremedio garratzac bicitzeco lagundu bearrean bear bada vicia laburtzendiote: Eriotza bizquitarteon postaca datorquio, eta ecin conta ala antsia eta icerdi otzen artean sartzenda azqueneco ordu eta puntu larria, eta iltzenda. Momentu onetan ematendu arimac salto espantagarria<sup>3</sup> bat mundu onetatic bestera demboratze eternitatera. Batbatean aurquituco da lecu berri eta bacar batean, bacarric adisquide eta lagun gabe; eztute utzico ere bere gorputza berequin eramatera.

Azquen asnacea edo atsa emanduen puntuan bertan adio bat erranen dioe creatura guciei. Bai urreriatic, ontasunac, ohoreac eta anditasunc ecin ecer servitz(a)<sup>4</sup> diozaquete. Burasoac, aideac eta lagunac ecin lagundu diozaquete. Alferric momentu artan deituco dio emazteac bere senarrari, alabac bere amari, aítac semeari, ez ez, alferric ceren inoren laguntzaric eztu izanen. Bere obra on edo gaistoequin Jaincoarequin bacarric aurquitucoda. Cerua gainean infernua azpian, eta bien erdian cincilica edo dilindacan<sup>5</sup> sentenciaren esperan dagoela. ¡O momentu icaragarria! ¿Nola egongo ote da arima tristea gorputzetic ateratu eta colpe batean buruz buru edo beguis (sic) begui Yuyearen aitzinean aurquitzen denean? ¿Cer pena, cer damua, cer naigabe, eta infernucó beldur eta larriatic artuco eztu bat batean Yuyec eguiduen gucia claro beguien aitzinean

1. Escribe primero *esaminatu diran* (sic) *batera urrena aguertu bear izatea*. Tacha luego desde *diran* hasta *izatea*, ambas inclusive, y en lugar de lo tachado escribe *eta agurtu* (sic) *bear izatea*.

2. Coloca *iragan* encima de *Ygaro*, entre líneas, con una indicación de que hay que añadir esa palabra detrás de *Ygaro*.

3. Añade el final *-arria* entre líneas.

4. La letra entre paréntesis se halla gastada en el original, en final de línea.

5. Añade *edo dilindacan* después de *cincilica*, entre líneas.

jartzen dionean, eta irur lecucu edo testigo aldi, Deabrua, Ainguerua eta bere conciencia bere contra salatzen edo manifestatzen asitzendirenean?

¡O Yuyamendu beldurgarria! Au dá bai Martir San Cipriano bati aimbeste pena eta larri ematen *cioena*. Fede sainduaren defensas lepoa ezpatari macurtu edo entregatu cionean, oyuz erranzuen: *¡Vae mihi quando veniam ad iudicium* (sic *-ti-*)! Ay nere triste(a)<sup>4</sup> esaminatu eta yuyatzeco presentatzen naicenean.

¿Baña non usteduzue yuyamendu au Yaincoac arimarequin eguinenduela? An ceruan, edo Yosafateco celai artan ote azquen egunean? Ez, erratendigu Teologiac Nagusiec, ez, baicen eriotzac artzen zaituen lecuán. Vici zaren sala edo guela ortan, ló eguitenduzun oya edo guatze orretan, zabiltzan tratu, vide edo mendi orietan, baldin or iltzen bazara *yayatua* (sic) izanenzara: eta au ere ain laster, non gorputza epela dagoen bizquitartean, infernuan arima erretzen betico egonenda condanacioco se(n)tencia<sup>4</sup> badu. An bai niorc icusi gabe joatenda arima edo cerura, edo infernura. O!!...

2.<sup>a</sup> pág.

2. Ain laster nola bat iltzenden puntu eta lecu artan bertan Jaincoaren tribunalarequin bat batean arima aurquitzen. Jesucristo gure Jauna, bere mayestade (sic *-ye-*) guciac jantziric tribunal onetan yarrita aguertzenda: alde batetic presentatzen *dira* Aingueru batzuec *libru* chiquin batequin non icusten baitire arimaren obra on guciac: eta bertze aldetic ecin conta ala deabru, aren becatuen liburu andi batequin non izcribatuac dauden bere vici gucico pentsamendu, itz eta obra guciac. Alferric gabaren iluntasuna bilatzenduzu zure itsusqueric, zure oinqueriac eguiteco, guciac aguertucoditu Deabruac bere liburu andian. Alferric arrazoin falsoac aurquitucoditutzu, munduari on iduri bat emanic, lagun urcoa lurreratze. Alferric coloreric ederrera ematendiotzute zure obrei biotzeuco usteltasuna eta pozoina estaltze; ceren alde gucietara Deabruac jarraitendizu; zure biotz gucia icustendu, gucia iscribatendu bere circunstancia guciequin yuyamenduan presentatze. *nihil enim est opertum, quod non revelabitur: Maht.* (sic) 10. 26. Deus ere ezta gueldituco aguertu gabe.

San Vichenchio Ferrerec erratendigu mutil gazte bat ispirituan yuyamendura deitua izan ceta, eta Jaincoac errancionean: *redde rationem villicationis tuae*: Zure viciaren contu ecartzu: bertatic ecin conta ala deabru bere beguien aintzinean bere becatuac jartzen así cirala. O! eta cembat becatu ateraco eztió? Cer cargu eta salatze eguingo eztió? Cembat derecho edo titulo aguertuco eztió Yuyec condena dezan? Anditucoditu alde gucitic arimaren culpa larri guciac, ceruraino jasaco ditu edo alchatucoditu arinenac, beltztuco ditu accione eta obraric sainduenac, eta acabatucodu azquenean, San Agustin (sic) dion bezala arimaren contra deadarca erranez.

Jauna, zuc badaquizu nic eznuela arima onengatic azoteac, arantzeac eta burlac sofritu: eznuela zuc bezala curutzean vicia eman eta ichuri odolic: nic zuc bezala eznió ceruric aguindu; ni gaidic ecin espera dezaque infernu baicic: ala ere pocicago guri jarraitu cigun zuri baino. Chiqui edo gatzetic becatuac eguiten asicen, eta beti nai duguna aguindu. Zure legue saindua zango enpean (sic) erabili du, eta mila ta mila maneretan autsi du. Jauna, au legue gabe abere bat bezala vici izanda.

3. Beguiria onelaco suyeto, edo presonarequin cer becatuac itzez, obraz eta gozog; onelaco egun, ordu eta lecutan, onelaco eta alaco bazterretan cer

loiqueria itsusiak eguindituen. Beguira alaco lagun arteco maledicione eta yuramentuei, oinqueria eta gorrotuei. Jauna gure lagun eta adisquide beti izanda. Veraz datorla gure aztaparretara. Justicia Jauna becatore onen contra. Justicia, Yuye yustoa; bere gustoz orai arte nerea izanda; gauza gucietan obeditu eta servitu nau, datorla bada beticoz gurequin infernura. ¡O cer infernucico icerdiac, cer penac, cer antsiac emanen dioten Deabruaren acusacione onequin arimari! cer eguinendu orduan, cer erran eta cer pentsatuco du? ¿Nora beguiratuco du, edo norengana biurtuco da momentu icaragarrizco artan? ¿bere Aingueru beguiratzalearengana?

¿Bainan cer erran dezaque Aingueru beguiratzaleac? ez besteric justua eta eguia baicic. Deabruac acusatzen dituenac guezurrac eta faltsoqueric badire, Aingueruac contatuco ditu chit aleguere arimaren eguiteco edo obra on guciac bat ere utzi gabe. Aguertuco du nola confesione humil batez erremediatu cituen deabruac salatzen diozcan becatuac, nola emanic vici saindu batera, bere asberapena<sup>6</sup>, eta negarrequin, barur eta penitenciarequin eguin cituen becatuen satisfacione emancion Jaincoari. Eta baldin Deabruac naibadute beren guezurrequin seguitu, Aingueruac ichilduco ditu.

Bainan vicitza gaistoa izan badu Aingueru au izanen dá salatzale eta acusazaille beldurgarriena: eta bere colera guciarequin erranen dio: *Despexisti omne consilium meum: Prov. 1. v. 25* nere conseilu gucia mespreciatu cinduen, eta nere avisu onei begarriac tapatzen ceniuten<sup>7</sup>. Sartu cinan nic apartatu nai cindudan ocosionetan: galdu ditutzu salvatzezo vide obenenac; nic beti inspi-ratzen nizun gauzaric onen eta zuzenena; eta zuc beti charrenari eta gaistoenari jarratzen (sic) cinion. Cembat aldiz eznizun erran juramentuac, maledicioneac eta murmuratzeco duzun oitura ori uzteco, eta casoric eztuzu eguin. Ygandetan meza uztea, lan eguitea, vigiliac austeac becatua cela, et (sic) zuc burlatuzara.

### 3.<sup>a</sup> pág.

4. Orduan Jaincoaren gana biurturic erranendio Aingueru Sainduac, Yuye yustua, au da urlearen arima zuc niri guardatzeco emancidana (sic). Nic daquizun bezala, contu artu eta eguindiot ahal gucia, nic gau eta egun aimbertze urtetan beguiratu diot; bere arimaco eta gorputzeco gaitz eta peril gucietaric libratu nai izan dut: Ceruco videan ibili cedin avisu eta argui anitz eman diozcat; bainan Jauna guciac burlatuda zure legue saindua beti zangoen pean erabili du; or mananendu (sic) bat, emen bertze bat, gaur bat, biar bertzebat, egun oro *zapatu* du zure legue saindua. Yusticia bada Jauna, justicia eta condena zazu: eztu mercei zure misericordia.

¡Ay ene! Cer larriac, cer antsiac emanen dioten, munduan zuen lagunic sainduena eta adisquideric andiena bere contra onela biurturic icusten duenian! ¿Cer eguinen du, cer erranen du, cer pentsatuco du orduan? Nora biurtuco da? Nola defensatuco da? Aingueru eguiazco baten cargu oriei, nola iardetsi edo errospondutuco du? Bainan ¿nola defensa diteque, baldin concien-cia bera asico bada arimari carguac eguiten, eta justoqui mercei duen condena-cioneaz gainquidatu edo convenzutu badu? *Accusatione consciencie sue convinctetur*. ¡O yuyamendu icaragarria! eta bere burua salatu edo acusatu

6. Encima de *asberapena*, y entre líneas, dice *suspiro*.

7. Así escribe: *cenituen* en lugar del esperado *cenituen*.

bear! Bai, e.a. Deabruac acusatu eta aguertu eztuena, concienciac berac confesatuco du.

Conciencia onec tribunal artan plazara bezala ateratuco diozca vici gucico pauso oquer macur<sup>8</sup>, gaisto, chiqui eta andi nola diranac: ateratuco diozca aimbeste vider zapatu dituen bere estatuco obligacione guciac: an Jaincoaren gaucetaco zuen epeltasuna eta egobía edo indiferencia: an lureco *guacentzat zalutasuna* eta Jaicoarentzat naguitasuna: an lotsaz, alquez edo veldurrez ongui confesatu gabe gorde cituenac: an alaco becatu eta gaistaqueria loi itsusi ecin erran ditezquenac: an... bainan ¿cer ateratuco ez tu concienciac daquizquielaric gauza guciac arras ongui? ¡O conciencia beldurgarria! ¡Nor ezta icarutzen zure acusacione espantagari onequin? Norc bada, bere burua ez icustegatic estatu triste eta icigarrizco onetan, norc eztu garbitubear confesione on batequin bere conciencia, bere arima? Eta ezta bertze acusazaileric?

5. ¡Ay ene! Jaincoa ofentsatzeco valiutu *zan* arima creaturez, bada creatura guciac ere lecucotzat edo testigotzat servituco dute: guciac mendecua escatuco dute. Egunazco arguiac, gauazco ilunac, ceruac, Yzarrac, echeac, arropac, mendiac, lurrac, elemento guciac arimaren contra justicia escatuco dute: *revelabunt caeli iniquitatem ejus, et terra consurget adversus eum: Job. 20. 27.* Ceruec aguertuco dute gaistaqueriac, eta lurra alchatuco da becatorearen contra.

San Geronimo batec erraten zuen bera yuyatzeco bere guela pobrea yuyamendura joango ote citzayon beldurtzen cela: bainan cergatic beldurtzen zara Dotor Saindua? Zure guela pobretto ori ezta ilen obia obequiago diruduen<sup>9</sup> vicien vici lecuca baino? beldurtzen naiz, dio Sainduac, guelan sartzera, ceren nere pentsamendu gucien lecuco edo testigu bati beguiratzen diodan: *ipsam quoque cellulam quasi cogitationum mearum consciam pertimescebam.*

Orai bada; baldin San Geronimo bat beldurtzen eta icitzen bada, aimbeste oracione eta barur, arri batequin bularrac colpatu eta azote colpequin ateratzen zuen odolez bustiricaco guelacho artaz: ¿Cer eguinendute aimberte murmuracionen, *medisencio* (sic) lecuco edo testigu izan diren sala, sucalde, tenda eta ostatu oriec aimberte itz loi aditu dituzten zocoac eta videac; aimbeste pentsamendu eta deseyu gaistori lecu emateco servitu cioten atec eta leyoac, aimbeste gaistaqueria icusi zuten sasi eta arbolac.

Ay! cer icerdi otza arimarena, mututzat ceuzcan *auben* (sic) guciac bere contra hitz eguiten dutenean! Ay ene! cer damua, cer dolorea alaco presuna ura icusi eta ezagutu zuen egun, ordu eta lecu arena! ¿Cer eguinen du arimac momentu onetan? Deabruac salatzen dute; Aingeruac acusatzen dute: concienciac eta becatuen lecuco izan diran creaturaric ecer ecenac publicatzen dituzte icusi eta aditu duten gucia. Norengana biurtuco da erremedio bila? Jesúsristoren gana! bainan cer adituco ote du Jesúsristoren aotic ordu artan?

4.<sup>a</sup> pág.

6. *Tunc loquetur ad eos in ira sua, et in furore suo conturbabit eos: Sal. 2. 5.* Orduan mintzatuco da arien contra bere colera guciarequin, eta duen furia osoarequin asaldatuco eta fundituco ditu. Ay ene! ¿Cer jarrico eztio arimari

8. Encima de *oquer*, entre líneas, pone *macur*.

9. Así escribe, habiendo corregido el final *-uena* de otra redacción anterior, que pudo haber sido *-iena*. Por tanto, primero habría escrito *dirudiena*.

momentu artan beguien aintzinean? o becatore<sup>10</sup> maitea. considera *dezazu* (sic) piscabat. Cembat pentsamendu igarotzen dire gure memoriatic, cembat itz gure mingañetic ateratzen dire egun batean, urtean eta anitz urtetan? bada gucia etorrico da yuyamendu onetara, guciaren cargu il eta bereala, J.C.<sup>oc</sup> arimari artucodio. Eta ¿cer izanenda Jesucristoren escutic arimac artu dituen fagore andien cargu artzen dionean? Nic, erranendio arimari, creatu edo eguin cindudan nere antzera, eta creatu cindudan ez gentil ete hereticoen artean guriristinoen errietan baicic: nic aimbertze *urtuean* (sic) bicia, eta ariman eta gorputean (sic) bear cinduena eman nizun: nic gurutzean il, eta erosi cindudan: nic nere cargura artu nuen zure arimaren mahasti preciatu orien contua: Ogoi eta amirur urte osoac, eta egun bateco descansu gabe, igaro ditut arima ori salvatzeco.

Beguiraz zure amorioagatic idequi *zan* bular oni, zuz<sup>11</sup>, mila aldiz lantzarequin colpatuduzu: beguiraz bost zauri auquei zu garbitzeco nai nuen iturri batzuec ciraden; bainac (sic) zuc becatuaren loitic ateratu nai izan etzinduen: beguiraz zuregatic ichuri<sup>12</sup> nuen odol au; bainan zuc zure *bicio* itsusiac *seguitagatic* (sic) zangoenpean *irabili* duzu: zure gatic il izan nitzan curutze batean. Cer eguin dezaquet gueyago salvatzeco?

Eta orduan, *quem Patronum rogaturus?* Norengana biurtuco da? Icusi duzue nola Deabruac aguertu eta publicatu dituen bere *libru* andian ceuzcon becatu guciac.

10. Cambiada de *peccatore*, con *p-* inicial.

11. Escribe así, en lugar de *zuc*, seguramente por errata.

12. En lugar de *ichuri nuen odol au* escribe primero, y tacha luego, *ichi nuen odol au*.



VII

*Ynfierno.*

*Discedite á me maledicti in ignem aeternum. Mabt. (sic). 25.41.*

*Zoazte, ni ganic, madaricatuac su betiecora<sup>1</sup>*

¿Sinestenduzu badela infernu bat? ¿Nola bada sinesten baduzu, badela infernu bat, becatu mortalean iltzendirenentzat; nola bada conserbatzen eta gordetzenduzu zure biotzean infernuco monstru orren pozoina? nola bada iduritzen zaizu gauza garratza eta gogorra dala penitencia? Sinestenbaduzu badela sú eternal bat gaisto gucientzat: nola bada usteduzu imposible dala lagun proximoari barcatzea, ebatsi duzuna bere jabeari itzultzea, eta becatuaren ocasionetaric urruntzea? ¡Oh becatari maitea! idequitatzu zure beguiac, beguirazazu atencionarequin, eta han icusicoditutzu ecin conta hal becatore zu bezalacoac.

Neurrizazu<sup>2</sup> cer bidastia edo distancia aurquitzen den zu eta infernuaren artean; ¡Oh cein urbil icusicoduzun! Yduritzen zait icustendutala infernuco sua arribatzen dela zugana. Oh! eta hau gucia icusi ezqueroz ¿nola eztuzu seculacotz uzten becatua? Non duzu fedea? non zurequico amorioa? non cenzua? ¡oh miseria! Adan becatua eguin ondoan ezta atrebizen presentatzerat Jaincoaren aintzinean, ceren biluciric icusten baicen; eta ¿zu presentatuzoará arregana biluziric Jaincoaren graciaz? Cainbat beldurtzenda galducoduela Jaincoaren vista, eta zu etzara beldurtzen galdubearduzula ceruco gloria? Saul Erregueac negar eguitendu, ceren galtzenden Ysraelgo corona: eta zuc eztuzu negar eguinen, baldin orai arteo bezala seguitzen baduzu zure becatuetan, galducoduzula ceruco corona? Icaratzenda Judas becatua eguinezqueroz; eta zuc ló eguinduzu becatuan? Non duzu zurequico amorioa? non salbatzeco guticia...? Aurquitzenzara indar ascoequin infernuco sua sofritzeco? *quis poterit habitare... Isai. 33. 14.*

Orrerat bada joatendire *baratzera* emen gaizqui bicitzendirenac: orrengatic erranen dautzuet, infernuan sofritzendirela tormentu guciac, bereciqui suarena. *Ave Maria.*

1.º Sargaitecen orai gure izpirituarequin icustera infernuan preparaturic dagon lecu becatorearentzat, eta sofritubeardituen izigarrizco penac condenatzenbada. Cer da infernu? leizondo bat, putzu bat, dio Tertulianoc, nora joatenbaitire mundu huntaco ciquinqueria guciac. Cer da infernu? Ugo Bitorinoc erratendu, dala zulo bat ondar eztuena, atea beti ertsiric, cerraturic daucona esperantzari, eta zabal zabala idequiric desesperacione, errabia eta<sup>3</sup> etsimenduari. Cer da infernu? S. Joan Evangelistac erratendu, infernu da lece

1. En realidad, *betiecora* escribe dos veces, pero la primera aparece un tanto confusa, por haber realizado correcciones en casi todas sus letras. Suponemos que por esa razón la ha escrito de nuevo y sin ninguna corrección ni rectificación.

2. Primero escribe *Negurzazu*, cambiando luego a *Neurrizazu*.

3. Se diría que escribe *errabia eta etsimenduari*, recayendo la duda sobre la voz *eta*, que estaría cambiada de *edo*. No tenemos seguridad total sobre cuál de las dos voces hay que elegir en definitiva, si *eta* o acaso *edo*.

andi bat, labe gorri bero bat, beti *suuz* betea eta bein ere hotzten<sup>4</sup> eztena, iraunguitzen eztena: infernua da, carcel edo presondegui bat lurraren hondarreen, alde gucietaric ertsia, ateric eta leihoric eztuena, Jaincoaren *justiac* (sic) ezarriduen becatu mortalean iltzendirenac castigatzeco.

Eta han, infernu hartan egonendira condenatu guciac, alde gucietaric, campotic eta barrenetic suz inguratuac, sutuac burdin gorritua dagon bezala. Infernua da lecu beticoa, permanenta eta eternoa, non egonendire on guciez gabetuac eta tormenta guciez inguratuac. Eta cer eguitendute han condenatuec? Ez bertzeric infernuco suaren carrac sofritu baicic. Cer jatendute? Suguen eta cirauen pozoina, hau da betico janaria, egunoroco bazcaria edo hazcurria. Eta cer aice asnatzen edo hats artzendute? Eztute bertze aiceric icatz bici biciac ematendutena baicic. Cer argui ote dute? han ezta arguiric iluntasuna baicic. Eta cein da condenatuen guatzea edo oya? Sugueac, zapoac edo apoac, eta icatz eta illeti biciac. Eta nola mintzatzendire? Oh cer blasfemiac, maledicione...

2.<sup>a</sup> pág.

2. Aita Saindu Ynocencio irurgarnac erratendu ilcela escolar edo estudiant bat, eta aguertucizayola bere Maestroari; baña nola? burdin gorritu bat bezala eta suz inguratua. Galdeguincion Mastruac e ya (sic) andiac ciren penac, eta ihardetsicion, han eztela pena eta tormenta baicic. Emen erranzuen, icustendena, sentitzendena, usnatzendena, gustatzendena eta uquitzendena gucia da pena eta icigarrizco tormentac: *in hunc locum tormentorum: Luc. 16. 28.* hala erratendu aberats condenatuac ere: bai, pena, gaizqui eta oñace gucien lecu huntan aurquitze (sic) naiz; eta, *crucior in flama* (sic): biciric erretzen naiz, quiscaltzen naiz. Oh cer leccionea...!

Becatua eguitendenean, bi gauza eguitendu guizonac; uztendu, abandonatzendu bere Jaun Soberanoa, ceinec bacarric eguindezaque doatsua, zorionecoa; eta itzultzenda, biurtzenda creaturaren gana norenganic beinere espera ezdezaque eguiazco on ttipiena. Ceren bada utziduen bere Creatzailea, mercedu utz dezan Jaincoac, egotz dezan, botadezan bere compainiatic, eztezan secular haren becoquiric eta aurpeguiric icus. Eta pena hau deitzendu Santo Tomasec: *poena damni: id est, carentia divinae visionis, carentia divinae praesentiae*: Jaincoaren ez icustea, haren compainiatic eta loriatic secularcotz campoan eta etsaigoan egoitea.

Ceren bada artzendu creatura eta harturic haren baitan ibintzendu bere gogoa; orrengatic bada infernuan creaturen ganic izanenda punitua, castigatua, eta bereciqui suac hartucodu bere contu. Jaincoaren justiciaco borrero izigarizco bezala. Han padecitu edo pairatu beadu (sic) negurric gabe tormentu guciac ariman eta corputzean. *vindicta carnis impii ignis et vermis: Eccli. 7. 19.* Suac eta arrac hau da concienciaren autsiquiac hartucodute mendecoa condenatuaren araguiaren contra. ¿Eta causitzen ote dá alaco suric infernuan? Adizazue.

3. *Discedite á me maledicti in ignem aeternum: Math. 25. 41.* Zoazte, ni ganic, madaricatuac su eternalara. Bainan, ene Jesus maitea, nora joanbeardute: *in ignem aeternum*: su eternalara. Norc sofridezaque maredicione hau? ¡Oh cer espantua, cër icara, cer biotzeco pena presuna delicatu arientzat! Bai,

4. Se le ha pasado la t de -tz-, que la introduce inmediatamente.

orai ecindezaquete sofritu... Bainan beriz (sic) erratendauzut, ene Jesus maitea, nora joanbeardute? *in ignem aeternum*. Eztire ateraco cembait dembora pasatu ondoan? ez. Jauna, zure creaturac dire, eta hala eztute izanen erremedio arintzeco pena ariec? Ezetz. Ene creaturac dire, baña utzi naute, abandonatu naute, ucatu naute: doacila bada beren lagun guciequin infernura.

Orai bada, baldin mundu huntaco sua balinbada tormentu eta pena gucien artean garratzena, zorrotzena ¿cer izanenda infernuco hura? S. Agustinec erratendu, ecen munduco su hau pintatua bezala dala infernucoaren comparacionez: *in cuius comparatione noster hic ignis depictus est*. Guisa berean mintzatzenda S. Anselmo, hala nola gure su materialac garaitendu (sic), iragaitendu su pintatua, hala mila ta mila aldiz indar gueyago du infernuco suac: ceren baita Jaincoaren ministroa eta borreroa becatoreac tormentatzeco, dio Tertulianoc. Bai, ene colerac, eta justiciac, erratendu Izp. Saind. (sic) izanendu beti iracequiric, pizturic su hau: *ignis succensus est á furore meo*: eta beinere ezta iraunguico, edo itzalico: *super vos ardebit Ger. 15. 14*.

*Mortus (sic) est dives et sepultus est in inferno: Luc. 16. 22*. Hil cen aberatsa, eta ehortzia izan cen infernuan. Bai, a. m. condenatua ehortziric dago infernuco suan; sua dú bere pean, sua gañean, sua bere barnean eta sua campoan, sua alde gucietaric. Sua icustendu, sua uquitzendu, su jatendu, su irestendu. Hala nola arraina itsasoan aurquitzen da urez inguraturic, guisa berean condenatua icustenda, causitzenda suz inguratua. Sinetsi nai eztuenac galdin dezala aberats gaisto ari, eta onec erranendio, *Crucior in hac flama* (sic). Oñazcatua, tormentatua alde gucietaric aurquitzenaiz su lambo, su gar hautan. Bere indar, colera eta errabia osoarequin castigatuco ditu: *in spiritu ardoris*: hala erratendu profeta Isaiac<sup>5</sup>. 4. 4.

### 3.<sup>a</sup> pág.

4. Ala nola otsoa<sup>6</sup> lanzatzenda, botatzenda ardi baten gañean, puscatzendu eta irestendu, ala infernuco suac, dio Dotore S. Alfonso Maria Ligorio, puscatzendu, irestendu condenatua; baña eztu acabatzen, eztu iltzen beti biciric dauca. Segui, seguizazu zure lizunquerietan ¡oh ero tzarra! erratendu S. Pier Damianec, seguizazu zure atseguin eta araguizco placeretan, arribatucoda egun bat ceñetan zure oraico gusto eta placer oriec izanendire berce ainbertze<sup>7</sup> egur eta icatz infernuan sua anditzeco. Cer gueyago? S. Ciprianoc erratendu, infernuan guizon eta emaztequi desonesten corpuz madaricatuac iraquico eta egosicodire beren corputzetic ateracoden urinarequin. Ynfernuan, S. Geronimoc erratendu, izanendu condenatuac ez suac causatzendituen oñaceac baccaric, bai eta ere emen padecitzen, eta sofrizendiren dolore eta pena guiciac: *in uno igne omnia suplicia* (sic) *sentient peccatores*. Cembat dolore mota eztire aurquitzen mundu huntan? buruco min ortz aguinetaco min, bietzeco (sic) min... Bada hec gucietaric izanenda beti inguratua condenatua. *Quis poterit...*

Corputzeco sensuac ceren izanbaitire lancaya, arma eta instrumentac bere

5. Cambiada de *Isaiasec*, tachando el final *-ec* y convirtiendo la *-s-* en *-c*.

6. Escribe primero *Leoina*, y luego coloca encima de esa voz, entre líneas, *otsoa*. No tacha ni borra *Leoina*.

7. No se leen bien, más bien se adivinan, las letras *-in-* de esta voz. Ni nos atrevemos a negar que ponga *-im-*, tal vez, al estar confusas por las correcciones que han sufrido. En el párrafo siguiente se da *aimbertzetan*, y en el subsiguiente vemos *aimbertze*, ambas veces con *-mb-*.

Jaincoa ofenditzeco, orrengatic bada guciec eta bacoachac bere tormenta izanendu: *per quae peccat quis, per haec et torquetur: Sap. 11. 17.* Cerequin eta norequin pecatua (sic p-) eginbaitu, arequilan eta berequilan izanenda castigatua eta tormentatua infernuan. An beguietaco bista, emen aimbertzetan loriatucena, atseguin eta placer hartuzuena beiratzèn eta icusten hauzia edo cillegui eztena; han gauza itsusien, icigarrien, nardagarrien eta atsecabecorren icustez dolozqui penatuco baita.

Santa Catalina Senacoac erratendu, bein batez bere oracione edo meditacionean cegolaric icusizuela Demonioa<sup>8</sup> bat, eta ambertze (sic) icaratucen Deabruaren itsustasuna icustez non erratenzuen, obequiago hautatucozuela urtuciric irabiltzea icatz bicien gañean munduaren azquen eguneraiño, ecen berriz icusi Demonioa. Beraz mementu batean baicic aimbertze beldur, lotsa eta espantua sartubacion bere biotzean Santa Catalinari Deabru bacar baten bistac ¿cer eztute sofrituco condenatuec presentatzendirenean tropaca ez momento batean baicic, baña bai eternitate gucian? eta cer echura edo figuretan usteduzue? batzuetan leoinac, eta catamotzac edo Tigreac bezala; bertze batzuetan arzà, otso, basurde eta sugueac bezala beren suzco aoequin puscatzeco eta iresteco maneran. Han icusicodituzte Aitec beren semeac, emaztequi ezconduac beren senarrac, han...

5. Bearriac izanendire tormentatuac ez choilqui su espantagarri arequin, bai eta ere betico mallucatzec icigarrizo arequin ¡oh cer errabiac, cer nigarrac eta ortz carrascac! eztire aditzen erneguac eta blasfemiac baicic. Madaricatzendute bere buruen contra, bere zorte gaistoaz; madaricatzendute Jaincoaren eta Ama Virginaren contra; Aingueru eta Saindu gucien eta creatura gucien contra; eta particularqui condenatzeco causa izandiren (sic) còtra. S. Pedro Damianec dio, aita batec madaricatzenzuela bere semea, erranez hiregatic nago emen, eta semeac madaricatzenzuela bere aita...

Guisa berean, erratendute S. Ciriloc, S. Agustinec eta S. Bernartec, bur-latzendituztela Deabruac erranez, alegrazaitzte hec izanendire zuen soñuac, zuen musicac, zuen cantuac. Placer andia hartzencenuten zuen juramentu, murmuracione, cantu lizun eta izcuntza desonestetan: etzinutenai aditu conseillu ónac; adizazue emen merceduzuen saria. oh!...

Halaber: gustua izanenda tormentatua gose amorratuaz eta egarri etsigoaz edo desesperatuaz. Cer yanari presentadezaquete deabruac condenatuei? ezdezaquete eman dutena baicic; hau da, *ignem aeternum*, sua beinere acabatuco eztena. Eta cer edari? Apoen, suguen eta cirauen pozoina edo venenoa. hau da eta izanenda... Oh cer dotrina ordiquerietan ibiltzendirenentzat, eta beren sabelean baicic pensatzen eztutenentzat. † *Odoratus: usna en la conclusion*<sup>9</sup>.

*Tactus*, uquitzea, gorpuz gucia izanenda penatua. Ceren eztu neorc han, suric, carric eta gauza liquits nardagarriric baicen uquituco. Nola orai hemen sensu guciec eta gorputzeco parte guciec, hartzen baitute atseguin eta placer: hala han guisa berean, hartuco dute guciec damu eta atsecabe, pena eta dolore, min eta oiñace...

8. Escribe primero *Demonioa, eta*, añadiendo a continuación encima de *Demonioa*, entre líneas, *bat*. Se olvida, creemos, de quitar la *-a* final de *Demonioa*.

9. Al final del sermón desarrolla este tema, o sea, el del olfato.

4.<sup>a</sup> pág.

6. Han izanenda dolore gucien eta gaitz gucien junta, bilgura eta batzarrea. Han izanendu condenatu ondicozcoac, miserableac, buruan min handia, hortz-haguinetan oñace bortitza, biotzean dolore errabiata, gorputzean gota, harri, icarra (sic), sucarr, finean ahal diratequeyen eritasun guciac. Hambat gaitz eta dolore izanendu, non dolore hutsez dolore biurtuco, conbertituco eta eguinenbaita.

Hemengo eritasunec eta oñacec eztute comunzqui beinere gorpuz gucia osoqui hartzen; batean beguietan duzu min, eta ez orduan bearrietan; bertzean escuetan eta ez oñetan. Eta ala ere parte batetaco oñaceac berac, haguin bateco minac, hain penatzen eta asaldatzen zaitu non gau gucian loric eguin gabe eduquitzen baitzaitu. Cer lizateque bada baldin gorputz gucian, eta gorputzeco endrecera, aurquientza, juntura, eta parte gucietan, osoqui, berdinzqui, eta batetan añace (sic) bacendu, eta oñace arequin basa bazter edo erreca batetan, guciez utzia baceneuntza? Orduan cinez cinateque onbear, ondicozco eta urricalquizon.

Hola<sup>10</sup> da bada, eta are urricalquizonago infernucos penetan dagoena. Ceren hura da osoqui gucia eta gucietan eri; hura da gucietan minez eta oñacez gainez eguina: eztu bazterric, eztu hutsgunerico, gucia da betea. Eta ongui dá hala den: ceren nola gorputz guciac eta gorputzeco parte guciez osoqui becatu eguin baitzuen, arrazoin dá halaber gorputz guciac eta gorputzeco parte guciez osoqui pagadezan; eta gucietan den alde guciz penatua, gaztigatua eta tormentatua.

7. *Quantum glorificavit se et in deliciis (sic) fuit, tantum date ei tormentum et luctum: Apoc. 18. 7.* cembat atseguin eta placer hartu baitzuen, hanbat eta hain bertze displacer eta atsecabe eman bequio. Han izanendire tormentatuac eguincituzten becatuen diferencien araberaz (sic). Han urguilusoa<sup>11</sup>, handinaya, soberbioac desorezqui zangoen azpian erabilico eta osticatuco dituzte. Han abariciosoa, diruz beteric cegoena edo egon naizuena, necesitate handian, eta miserian jarrico da. Han sabeldarrayoac, edo triponciac, golosac, lamitiac, jan edanera emanac gosez eta egarriz, ur chortabat ere ecin ardietsiz egonendire. Han arnegarriec beren miac izanendituzte min bici batez beti erreac eta janac. Han guizon eta emaztequi haraguiaren loian lizunduac eta hidoiztatuac ibili direnac deabru icigarriec beren aztapar zorrotzez larrutuco eta tormentatuco dituzte.

*Colligite primum zizania, et alligate ea in fasciculos ad comburendum: Math. 13. 30.* Bil etzatzue belar gaistoac, bil etzatzue multzuca eta zamaca erretzeco elcarrequin. Cer erran naidu? S. Greg<sup>c</sup>. dio, infernucos abariciosoac abariciosequin (sic)<sup>12</sup>; oinac, lapurric ohoinequin: arnegariac, juramentueguileac madaricariac elcarrequin egonendirela. Desonestac, lizunac zama bat eguinendute; junto eta elcarrequin eguinzuten becatua; elcarrequin bada izanendute beren betico pena.

8. *In diebus illis desiderabunt homines mori, et mors fugiet ab eis: Apoc. 9.*  
6. Orduan penetan daudenec desiratuco dute bere egunen fina eta acabantza;

10. No estamos seguros de la -o- de *Hola*, y no nos extrañaría que fuse una -a-, por tanto *Hala*.

11. Escribe primero *urguiloa*, que luego cambia a *urguilusoa*.

12. Corregido de *abariciosequin*.

hil nahico dute, bainan alferric, ceren eriotzea (sic) hetaric igues eguinendu. Eta ezta miresteco, hec han hala desiratzea; ceren bere baitan erreac, deseguinac, eta alde gucz desconsolatuac aurquitzenbaitire. Campoan suac erretzen tu, eta barnean harrac puscatzen tu. Eta harra au ezta ilen erratendu Ysaías Profetac *vermis eorum non moritur*: 66. 24. Har hura da concienciaren acusamendua, autsiquia, eranzutea, eta infernuan daudenec bere baitan duten damua, urriquia eta oroitzea dá: nola izanzuten indar, antze, ahal, escu eta botere, pena hetaric gucietaric escapatzeco; eta nola guciarequin ere, bere faltaz etziren escapatu, bere faltaz galduciren; eta utzi zuten escuen artean izanzuten dembora, ocacionea probechatu gabe, iragaitera eta galtzera.

Oroitze onec acusatzenditu, larrutzenditu, desiguiten eta puscatzenditu. ¡Ah nerea da culpa! Anitzetan erratencidaten juramentu eguiteco usantza utz nezala, nori berea biur niazola (sic), etsaiarequin adisquide nendilla, adisquide-tasun escandalosa uzteco... bainan nic irri eguitenuen.

†<sup>13</sup>*Odoratus*: usná, bai sudurrac izanendire penatuac usain gaisto batez, quirats handiaz. Bai, azquen egunean jautsico dire gaistoequin munduco hatsqueria eta ciquinqueria guciac infernura; eta usain gaisto artaz egonendire betiere condenatuen sudurrac beteac eta quirastuac. S. Buenaventurac erratendu; munduaren erdian ezarria izanbacen condenatu baten gorputza, asqui izanencela hil arazteco guizon guciac bere usain gaisto quiratsarequin..

13. Aquí desarrolla el tema del sentido del olfato, como lo prometió en la página precedente.

VIII

+

*Erat<sup>1</sup> Jesus ejiciens demonium (sic), et illud erat mutum.  
Luc. cap. 11. v.º 14.*

Deabru baten egozten hari cen, eta cen hura mutua<sup>2</sup>.

Infernucó etsyayac becatoreac<sup>3</sup> eramateco vere gana itsutzenditu eta guero eguitendu naiduena etaz. Yincoaren ofensac ezarri dituen irriscuac ez ecusteco, lembicicoric eguitendiotena dá itsutzea eta itsuturic eramatenditu becatu eta malur gucietara. Bainan becatua eguin ondoan instantean mututzenditu confesatu ez detzaten beren becatuac alquez, eta ala lotzenditu bertze cate vortitzago batequin; aú dá, sacrilegiozco becatuarequin. Baldin orai arteo utzi badituzue becatuac alquez confesatzeco, icusicoduzue eguinduzuen gaizqui andia, eta zuen estatu tristea. *Zauzte atencionearequin.*

Becatoreac<sup>7</sup>, vere accione dorpe eta itsusiequin viotzeraino colpatudu vere tuac izanbeardire<sup>5</sup>: San Agustinec dionez, punitu gabe eztaiztezque utzi; edo Yincoaren escuz, edo guizon penitentarenaz punituac izanbeardire. Gure Yinco amultsuac ceinec eztu nai gure felicitatea baicic, bere barcamenduco tribunalea ezarridu bere Ministroen escuetan; eta baldin penitentac presentatzen badire disposicione eta urriquimendu guciarequin esperatzaquete becatuen barcamendua. Confesadetzatzue zuen becatuac, erratendigu Izpiritu Sainduac, eta Concilio eta Elizaco Aita Sainduac erratendute, naiduenac salvatu vere arima confesatubeardituela bere becatuac<sup>6</sup>.

Becatoreac vere accione dorpe eta itsusiequin viotzeraino colpatudu vere Yincoa; orai bada, arren ganic ardietsi nai badu gracia galdua vere viotz guciarequin sentitu eta confesatu beardu eguindion ofensa. David Erregueac erratencion vere Yaunari: *Pone Domine ostium circumstantiae (sic) labis (sic) meis.* Ezarridezazu borta bat ene aoan<sup>8</sup>: eta San Agustinec erratendu; eztio Davidec erraten, ezarridiezazu paret bat, baicic borta bat. Borta idiquitzenda eta estenda; idiquitzenda becatuac confesatzeco, estenda itz lizun eta itsusien

1. Al margen izquierdo se lee: «No es producción del P. Adoain. El Vice-Postulador» (y una rúbrica). Quien esto escribió fue el P. Gumersindo de Estella –Martín Zubeldía Inda–, capuchino. El actual Vice-Postulador, José Ancín Irure, cree que sí es producción del P. Adoáin, y nosotros estamos de acuerdo con su opinión.

2. La traducción al vascuence del texto latino está redactada con letra y tinta distintas al resto del sermón, que se repiten a lo largo de éste en frecuentes correcciones y ocupan los dos tercios finales de la última página del manuscrito.

3. Cambiada de *becatorosac*, según pensamos.

4. Cambiada de *cergatic*.

5. Ha tachado *cergatic* delante de *San Agustinec*.

6. Ha tachado *bere becatuac* en el comienzo de la línea siguiente, y las ha escrito al final de la línea precedente, entre líneas. Hace estos cambios con cierta frecuencia y siempre con la letra y tinta de que se habla en la nota 2.

7. Cambiada de *Becatorosac*, según creemos.

8. Cambiada de *agoari*, con la letra y tinta de la nota 2.

ez<sup>9</sup> erraiteco. Guiristinoac beti izan beardu borta vere aoan<sup>10</sup> cerratzeco itz gaistoei, eta idequitzeo confesioneco tribunalean; eta orduan, dio San Agustinec, izanenda salvamenduco eta ez galtzeo borta. Tentatuac izatzenatelaric Yincoaren eta prosimoaren contra itz gaistoac erratera, orduan ichiltzea bertutezco actabat dá; bainan confesioneco Tribunalean ichiltze ori zuen arimac galtzeo eta damnatzeco izanenda, dió San Agustinec.

2.<sup>a</sup> pág.

2. Ynfernucó etsayac becatua eguin baino leen zabal zabala ezartzendu atea edo borta, bainan becatua eguin ondoan burdinazco gacoarequin cerrartzendu<sup>11</sup>. San Antoninoc erratendu, Saindu batec icusizuela bein deaburua cebilala eliza batean confesatu naizuteen (sic) presuneen inguruen, eta galdeturic zertan cegon an, errespondatuzuen: nic quendunioten<sup>12</sup> becatua eguiteco beldurra, eta orai sartzendiotet beren barrenean confesatzeco alquea. Zauriac usteltzen edo gancrenatzen<sup>13</sup> astendirenean<sup>14</sup>, fite causatzendute edo eracartzendute<sup>15</sup> eriotzea: bada arimaren zauriac becatuac dire, eta ec gordetzen badire confesionean laster gancrenatzen<sup>16</sup> eta usteltzendituzte arimac. Veraz, ene aditzaleac, alque madaricatu onec garaitubazaituzte, oraindanic autsizazue cate ori eta confesadetatzazue zuen miseriac. Gure Yincoac, dió San Grisostomoc (sic), ezarridió becatuari, nic eztaquit cerbat (sic), non beti eramatendu izcribaturic vere lotsa eta alquea; eta eguin ondoan emaitendio alaco confidencia bat confesatzen badu vere utsa. Bainan gure etsai maltzurac (edo astutoac) erratendio eguinazazu, eguinazazu au eta bertze ura... izanenduzu dembora confesatzeco, eztuzu certaz icitu, utzazu beldur ori eta izanzazu curaye gueyago; zure Yincoac barcatuco dazquitzu zure becatu, eta zure uts guciac. Bainan becatua eguin ondoan, ¡oh! e.a.! orduan ezartzendio veguien aintzinean eguindituen itsusqueriac, Yincoaren contra eguindituen ofensa estonagarriac, ucatzendio lembicico confidencia ura, eta arren lecuan ezartzendio Yincoaren justicia miragarria, eta azquenean ¡oh! lotzendio vere mia lotsa eta estonagarrizco alque batequin! bai, oh guizonaren miseria! becatua eguiteco izanzuen Leoi baten curayea, eta confesatzeco iduridu erbi lotsagarri bat!

3.º Socratesen discipulo batec tratzenzuen eche gaisto batean, egunbatez eche artaric ateratzean icusizuen nola pasatzencen vere Maistrua eta alquez beteric erretiratucen, bainan bere Maistruac icusiric joancen arregana eta errancion; ¡Ah ene aurra! Eche ontan sartzeco izan bearduzu alqueric, bainan ez ateratzeco. Manera verean erraten dautzuet, ene a. lotsa andia izan bearduzue accione dorpe, accione itsuibat (sic) eguiteco, bainan eztuzue izanbear

9. La palabra *ez* ha sido colocada entre líneas con la letra y tinta de la nota 2.

10. Cambiada de *agoan*, con la letra y tinta de la nota 2.

11. Desde *Ynfernucó* hasta *burdinaz* escrito primero en la página precedente, donde se tacha, y vuelto a escribir en la otra página con estas variantes: *lén* por el definitivo *leen*; *atari* por *atea*, creemos; y *porta*, que cambia inmediatamente a *borta* y se mantiene en la redacción final.

12. Cambiada de *equendunioten*, borrando la *e-* inicial. Sucede lo mismo en la página 4, párrafo 2 de este sermón.

13. Cambiada de *cancrenatzen*.

14. Cambiada de *astendenean*.

15. Encima de *causatzendute*, entre líneas, coloca edo *eracartzendute*.

16. Cambiada de *cancrenatzen*.





lotsaric confesatzeco, bai alque andia izanbearduzue itz loi oriec erraiteco, bainan ez confesatzeco.

3.<sup>a</sup> pág.

Bai beldur andia izanbearduzue prosimoaren eta Yincoaren contra alchatzeco, bainan ez zuen becatuac confesatzeco. Considerazazue Santa Maria Magdalenaren etsemplua, eta onequin animatucozarate austera confesatzeco alquea. Veguirazazue emaztequi aú joatendela echez eche, eta carricaz carrica zaarrac eta gazteac, ezconduac eta ezcongayac vere ganatzeco: Bainan becatu eta munduco placer edo atseguin etan sarturic cebilalic uquitzendio Yincoaren gracia vere viotza, ezagutzendu vere estatu tristea, eta momentu verean joatenda Medicua vila vere eritasunetic sendatzeco. Niri iduritzenzait gure Magdalenac carrica barna joatean, galdinenzuela, non dá Jesus? or dá Fariseoaren echean. batere guelditu gabe sartzenda salan, belaunicatzenda Jesucristoren presencian eta vere beguiac vi iturritan cambiaturic confesatzenditu vere uts eta escandala guciac, ¡oh cer etsemplua! izan otezuen Magdalenac lotsaric eta alqueric mespreciatzeco munduaren erranac? Eta cer erranendute orai arteo confesatu eztirenec? eta cer orai arteo alquez veren becatuac ichildudituztenec? ¡Ah! Magdalenac confesione onequin ardietsizuen cerua. ¡Ay ene aita! venturaz erranendit guiristino arrec: nic nainuque confesatu, bainan ene becatuac andiac eta anitz izanezgueroz arras itsusiac dire, eta orrengatic enaiz venturatzen. ¡oh. e. a. maitea! ori dá infernuco engainu andi bat.

4.<sup>o</sup> San Agustinec (sic) etzen contentatu aoaz<sup>17</sup> eguinzuen confesioneaz, eta ala vere becatu guciac izcribatucituen liburu batean eta manera ontan eguinzuen confesio publico bat. Izan otezuen alqueric? bai e. a. Bainan munduco erran eta errespetu guciac zapatucituen vere arima salvatzeco. Zuec eztuzue necesitateric izcribatu eta publicadetzatzuten zuen becatuac; niorquere eztu jaquinen zuen confesoreac baicic. Ea veraz, autsizazue alque ori, purruscazazue cate ori, eta confesadetzatzue orai arteo ichildudituzuen becatuac. Munduco tribuñaletan veren utsac, gaizqui eguinac edo crimac (sic) confesatzendituztenec condenatuac<sup>18</sup> beti ateratzendire. Bainan ezta ala confesioneeco tribunalean; emen veren becatuac aitortzendituztenec ez choilqui libro eta barcaturic gabe<sup>19</sup>, bai eta ere veren Yincoaren gracia itzuliric joaten dire. *Post confesionem* (sic) *datur penitenti* (sic) *corona* confesione ondoan ematenzayo penitentari coroya<sup>20</sup>, *dio S. Grisostomoc*. Sendatu naiduenac eritasunetic, precisodá vere Medicoari manifestadezala deus ere gorde gabe vere eritasun gucia; bertzenaz egunetic egunera indar artucodu eta emanendio laister eriotzea. Medicuac ecin curadetzaque sendadezaque<sup>21</sup> iñoratzenduena<sup>22</sup>: *Quod ignorat medicina non curat. Conc.º de Trento*.

4.<sup>a</sup> pág.

Manera verean, zuec ezpadituzue ongui esplicatzen zuen arimaco eritasun

17. Cambiada de *agoaz*.

18. Cambiada de *damnatuac*.

19. Ha colocado *gabe* entre líneas y se ha olvidado de cambiar *barcaturic* en *becaturic*.

20. La traducción al vascuence de la cita latina, con la letra y tinta distintas. Traduce *corona* con la voz *coroya*.

21. Coloca *sendadezaque* encima de *curadetzaque* (sic -tz-), entre líneas.

22. Cambiada de *ignoratzenduena*.

guciac, nola Medicu Izpiritualac eman<sup>23</sup> detzaque beardituzuen erremedioac? Nola senda daiteque zuen arima, baldin alque impruden (sic) batequin gordetzen badituzue eri daucan gaitza? Bainan nic ¡Ah ene Aita! beldur andibat dut confesatzeco ene becatua: bada beldur ori autsi bearduzu naibarimaduzu salva (sic) zure arima. Izpiritu Sainduac dio vi alque direla: batac eramaítenditu guizonac becatua, aú guertatzenda confesioneco tribunalean gordetzendituztenean veren miseriac: eta bertzea confesatzean sentitzendutena, bainan azqueneco onequin Yincoaren ganic errecibitzendute mundu ontan gracia eta bertzean gloria.

5.º San Agustinec erratendu, badaquizue cer eguitenduen gure etsayac becatorearequin?<sup>24</sup> Otsoac ardiequin eguitenduena. Artzainac icusi gabe sartzenda otsoa artaldean, artzendu bat; bainan nondic? Artzen otedu besotic, edo zangotic?<sup>25</sup> Ez, ene ad.: artzendu lepotic tincatzendu<sup>26</sup>, estutzendu vere ortzequin eta ala eztió uzten marrasca eguiteco indarric. Ceren<sup>27</sup> badaqui otsoac marrasca eguitenbadu joanendela Artzaina eta quenducodiola<sup>28</sup> eguitenduen presa. Otso infernalac Jesucristoren ardiac, aú dá Guiristinoac, itsutzenditu, eta itsuturic sartzenditu ocasioné eta irriscu gucietan non dic (sic) eztaitezque *espaca* (sic) Yincoaren gracia galdu gabe. Éta baldin veren concienciac icusi ondoán, *determitzen* (sic) badire confesatzera: orduan; oh! artzenditu tzintzurritic, otsoac ardia bezala, estutzenditu confesa ezdetzaten<sup>29</sup> veren becatuac; ceren<sup>30</sup> confesatzenbadituzte, badaqui galtzendituela beticotz. ¡Ah! eta cer esperantza izandaiteque confesatzen eztirenetaric? eta cer esperantza gaizqui confesatzen direnetaric? eta cer confesioneco tribunalean becatuac gordetzendituztenen ganic? eta cer guizon eta emaztequi orgüiloz confesatzendirenen ganic? ¡Ah! Cer! San Alfonso Ligorioequin erranendut, *deaburuaren* azpian ezartzendirela. Cer erranencenuquete eri batec artu izanbazuen vere Medicuac manatucion erremedioaren toquian vasubat pozoin?<sup>31</sup> Oh! vere escutic artudu eriotzea. Bada<sup>32</sup> zuec gordetzendituzuelaric confesioneco tribunalean becatuac; zuen escutic artzendumuzue zuen damnacionea condenamendua<sup>33</sup>, eta zuen miseria eternala. Ongui confesatzendirenei Jesucristoren odol sacratuaren merecimendu guciac dispensatzenditu confesoreac absolucionea emai-

5.ª pág.

ten daucotelaric; bainan gaizqui confesatzendena (sic); cer eguitendu? oinpean ezartzendu Jesucristoren odol sacratua: eta estatu triste ortan comu-

23. Usa esta voz en lugar de *aplica*, que tacha.

24. Cambiada de *becatorosequin*, según creemos.

25. Cambiada de otra palabra, que no hemos podido averiguar, pudiendo tan sólo decir que comienza por *a-* y tiene cuatro letras.

26. Coloca *tincatzendu* entre líneas, indicando que debe introducirse entre *lepotic* y *estutzendu*.

27. Cambiada de *cergatic*.

28. Cambiada de *equenducodiola*.

29. Escribe primero *confesa ezdetzaqueten*, tacha a continuación e inmediatamente *ezdetzaqueten* y escribe *ezdetzaten*.

30. Cambiada de *cergatic*.

31. Añadida la *-n* final posteriormente.

32. Cambiada de *Baldin*.

33. Encima de *damnacionea*, entre líneas y sin anular esa voz, coloca *condenamendua*.

niatzendena (sic), erratendu S. Grisostomoc, votatzen duela Jesucristoren Gorputz divinoa lecu loizu batera bezala. *non minus detestabile est in os pollutum quam in sterquilinum mittere dei filium*. oh alque madaricatu! Cembat arima eramatendituen infernura! *magis memores pudoris quam salutis, Tertulianus*. gueyago maitatzendute veren fama ecic veren salvamendua! oh itsuac!

6.º ¡Ah ene aita! venturaz erranendit emaztequi arrec: ezautzendut aimbertze urtetan enaizela ongui confesatu: Bainan cer erranendu ene confesoreac aditzenduelaric ene erorico aú? Cer? erranendu becatorea<sup>34</sup> zarela errach erortzera mundu ontan vicidiren bertze anitz bezala; erranendu accione itsusi bat eguin izanbaduzu becatua eguiten, accioneric andiena eta oben ena (sic) eguiten duzula confesatzen zure utsac. Bainan beldur naiz ene becatua publico eguinendela. ¡Oh miseria! Cembat confesorei erran beardituzu? Asqui dá bati manifestatzea, ceinec zureac bezala aditzenditu bertzenac; eta baldin urriqui-menduarequin errecibitzenbaduzu absolucioea jartzenzara Jincoaren gracion eta eztuzu obligacioneric bertze batequin confesatzeco. Bainan errepugnancia andia dut au gucia erratera ene Aita Izpiritualari. Alquetzenezara zure Aita Izpiritualari erratera? Orduan obligatua zaude vilatzera bertze bat. Bainan aditzenbadu ene confesoreac bertze batequin confesatu naizala samurtucoda. ¡oh itsutasuna! Cer naiduzu eguin bada? naiduzu joan infernura zure confesoreac ez samurtzeagatic? edo zure confesoreac naidu zure arimaren salvamendua edo ez: zinez deseatenbadu alegratucoda eta benedicatucodu beti ordu ura. ¡Ah ene aita! venturaz erranendit bertze arrec: Aimbertze urte dut confesatzen naizala beti batequin; bainan joaten baniz orai bertze baten gana, galducodut arrequin ene opinione ona. Laudatzeco dá confesore batequin beti confesatzea, bainan causa andia duzularic arrequin ez confesatzeco, edo alquez edo beldurrez, edo bertze motivo bat (sic), orduan vilatubearduzu bertze bat zure conciencia garvitzeco ongui eta guero seguidaquezu zure confesorearequin. Eta baldin zure arima naibadu salvatu ongui artucodu, eta oraino verac utzi bear dauzu Urtean cembait aldiz confesatzera bertze confesore batequin, Serorec eguitenduten bezala. Libertate onen faltaz ¡oh! eta cembat sacrilegio eztire eguiten!

#### 6.ª pág.

Ytaliaco erri batean predicatzen nuelaric 1841<sup>35</sup>, presentatuzen presunabat itz bat ezin mintzatuz negarrez ¡Ah ene aita! ¡Ah ene aita! Cer naiduzu bada? ¡Ay! becatore<sup>36</sup> andibat naiz; veguirazazu zaar bat naizala, eta orai arteo eztut eguin confesione on bat. ¡Ah! ¡ay ene! nola bada? aimbertze urtetan confesatu naiz beti batequin, erorinitzan becatu batean eta alquez enaiz venturatu confesatzera, eta ala ¡ay! ¡ay ene! confesatu naiz bortz eum (sic)<sup>37</sup> aldiz; eta sentitzendutena dá, estatu itsusi ortan comuniatzen nitzala. ¡ay ene! badá misericordia nitzat?<sup>38</sup> adizazue orai arteo gaizqui confesatu zaratenac.

7.º ¡Ah! nic nainuque, erranendit bertze arrec, utzi ene confesorea bainan

34. Cambiada de *becatorosa*, sin duda alguna.

35. El año 1841 ha añadido posteriormente, entre líneas.

36. Cambiada de *becatoros*.

37. Escribe *bortz eum* (sic -m) encima de *milla*, entre líneas, y anula *milla* tachándola. El cambio es contemporáneo de la primera redacción.

38. Cambiada de *enetzat*, en fecha contemporánea a la primera redacción.

eztu nai utzidezadan: bada nic erratendizut, edo zuc naiduzu utzi libro munduco lizunquerietan zure lagunac bezala vicitzeco; edo naiduzu utzi confesio on bat eguiteco: zuc naibaduzu abandonatu bertze lagunen libertatea seguitzeco, orduan autatzenduzu zure damnacionea: eta ala eguitendute erreyalqui orai batequin guero bertze batequin, aurten batequin... confesatzendirenac: bainan zuc ezagutzenbaduzu confesio onbat eguiteco necesitatean zarela, eta etzarela venturatzen arrequin eguitera, orduan obligatua zaude uztera: eta esaminazaitte ongui beticotz utzi bearduzun edo ez. Bertze arrec erranendit; ¡Ah! nic nainuque confesatu ongui, bainan confesoreac (sic) asarratucozait aditzenduelaric becatu itsusi aú. ¡oh ene Jesus maitea! eztuzu ecusten deaburuaren engainu bat dela, zu infernura eramateco! ez, ene anai maitea. Confesoreac caritate guciarequin errecibitucozaitu, eta conseilu onac emanendazquitzu. Eztuzue ecusten cer alegria eta bozcario andia errecibitzenduten arrantzaleac erortzendenean itsasoco arrai andibat? bada e. a. confesoreac eztire arimaren arrantzaleac baicic. Eta cembatenaz andiago presentatzenden arraya, hambatenaz andiaogoa dá equen alegría. eta cembatenaz becatu eta lizunqueria<sup>39</sup> votatzenduten veren aotic<sup>40</sup>, hambatenaz garviaogoa (sic) guelditzenda becatorosen arima. Aimbertzze veldur duzu guizonaren erreporchu bati, eta eztuzu veldur Jesucristoren erreporchu eternalari? Veldurtzenezara publico eguinendela zure becatua, guizon becar bati eta secretuan confesatzenduzularic; eta veldurtzen etzara egun batez zure Guratsuen, anayen, adisquiden, aiden<sup>41</sup>, errico eta munduco gende gucien aintzinean eguinbearduela publico? ¡Oh! valdin vacenu den federic chumeena segurqui confesatucocenuquela. bainan eztuzu federic. eztuzu federic...

7.<sup>a</sup> pág.

8.<sup>o</sup> Eztaquizu cer erratenduen San Bernatec? Orai uztenbaduzu alquez zure becatua confesatzeco azquen jujamenduco egunean guizonac eta emaztequiac, chiquiac eta andiac, aingueruac eta Deaburuac jaquinendituzte, ez orai arteo itziduzun (sic) confesatzeco becatu ori, baita ere zure pensamendu, gogoeta itsusi, itz dorpe, doctrina gaisto eta escandala guciac. *revelabo pudenda tua in facie tua. Nahum. 3. 5.* nic, erratendu Izpiritu Sainduac, nic ezarricoditut mundu guciaren vistan zure ziquinqueria guciac. *revelabo pudenda.* Escapatu<sup>42</sup> naiduzu jujamendu terrible artaric? bada eguinzazu San Ambrosioc conseilatzendizuna. Ynfernucio Etsayac zure becatu guciac dauzca vilduric Jesucristoren jujamenduan zu acusatzeco. Escapatu<sup>43</sup> naiduzu acusacione ortaric? bada autazazu confesore bat, manifestadiazcatzu zure uts guciac, eta orduan eztuzu ízanen acusazaileric zure contra. Bainan contrara, erratendu San Agustinec, confesioneco tribunalean becatuac gordetzendituenac, lotzendu becatuarequin vere arima, eta mespreciatzendu Yincoaren barcamendua: *excusas te, includis peccatum, excludis indulgentiam.* San Alfonso Ligorio erratendu, emaztequi becatore<sup>44</sup> bat joatencelaric confesorea vilatzera vere

39. Aquí falta alguna palabra, que podría ser *gueyago*. No se halla en el manuscrito.

40. Cambiada de *agotic*.

41. Añadido en fecha contemporánea la primera redacción el final *-en* de *anayen* y la *-n* de *adisquiden* y *aiden*.

42. Cambiada de *espacatu* (sic *-paca-* en lugar de *-capa-*).

43. Cambiada de *espacatu*, como la nota precedente.

44. Cambiada de *becatoros*.

conciencia garvitzeco, galdinciola etsayac; nora zoaz? eta arrec curayerequin jardetsiciola (sic j-); vanoa, zu eta ni garaitzera. Orobat erratendautzuet nic, e. a. baldin orai arteo ezpazarate confesatu, confesa zaitezte dembora gueyago utzi gabe pasatzera. Baldin orai arteo gorde badituzue zuen becatuac, autazazue confesore bat eta errandiotzatzue gucia zuen burua eta etsai vera garaitzeco; eta orduan Jesucristo verac besarcatuco zaitute (sic).

9.ª Ea veraz, autsi eta puscazazue Deaburuaren cate ori, ceinequin loturic aurquitzenbaita zuen arima. Votazazue zuen arimaganic sugue pozoindu (sic) ori ceinac eztiio uzten momentu bat erreposatzera. ¡oh! eta cer infernua eztu pairatzen vere barrenean becatuac confesatzeco dauzcan presunac! Concienciaco arrac vere arima eta viotza puscatzen eta zaticatzenditu ¡Oh estatu tritea! Ea veraz, veldur barimaduzu, erraiozu confesoreari alaco escrupulo bat duzula. Orduan confesoreac ateracozaite zure estatu triste ortaric. Fite bada, vilazazu Medicu abil bat zure zauriac sendatzeco; humiliazait Magdalena bezala confesore baten oinetan: etzazula izan ez veldurric, ez alqueric munduaren erranentzaz.

8.º pág.

eta orai arteo seguitzenbatutzu munduco atseguinac<sup>45</sup> galduco zara beticotz. Bainan ez, estut ala uste: orra nonduzu (sic) Jesucristo gure Jauna deitzendauzula vere graciarequin; orra non duzu besoac zabalduric zure güait dagola. Alcha zazu ceruraino zure votza, eta otoitz cartsu batequin deitzatzu zure gana ceruco Aingueru eta Saindu guciac. Bainan gucien gainetic, deizazu Ama Virginia Maria, eta erraiozu zuc naiduzula salvatu zure arima, eta gure ama bezala ardetzala zure arima bere beso maitetan, eta presentadetzala Jesucristori. Bai, ¡oh! ene ama lagunenezazu (sic), zure baitan esperatzendut, nundu (sic) ontan ongui vicitzeco eta guero Yincoaren gracion *iltzeco*<sup>46</sup>.

*Etsemplo*<sup>47</sup>: Errí batean vicicen Andre abrats bat, eta errico pobre guciec ezagutzenzuten veren Ama balíz bezala; cergatic bere caritate andiarequin socorritzen edo laguntzencituen veren necesitate gucietan. Itz batez bere ontasun guciac pobrenac ciren. Eta bertzenaz errico guciac *zaucaten* andre saindu bat bezala; cergatic *arrentzat* etzen bertze diversionic Elizan egoitea eta maiz cõnfesatzea baicic. Eritucen, eta *iltzeco* sacramendu guciac errecibitu izancituen. Arren enterramendua (sic) idurizuen trionfoco besta andi bat; eta guciec erratenzuten ceruan da gure ama. ¡Bainan cein diferentac diren Jaincoaren jujamenduac!

Andre onec zuen semebat apez, eta jaquinzuelaric bere ama ilcela asicen otoiz eguiten; bainan ala cegolaric aguertucen itzal beltz bat: icituric guelditucen, bainan errancion, zaude gueldiric ni naiz zure ama: Ene ama! bai: Eta cer estatutan zaude? aurquitzenaiz infernuan. Etzinan maiz confesatzen? bai, eguia dá; bainan ene gastetasunean eguinuen becatu itsusi bat eta alquez eznuen beinere confesatu, eta orrengatic beticotz... Eta cer significatzendu lepoan eramatenduzun sugue ori? (sic) Sugue onec estutuninduen ez confe-

45. Hemos dudado si hay que transcribir con *-ts-* o con *-tz-*, o sea, *atseguinac* o tal vez *atzeguinaç*.

46. La voz *iltzeco* se halla subrayada en el original.

47. Con letra, tinta y pluma distintas—las mismas que aparecen en casi todas las enmiendas, cambios y añadidos del sermón—, se completan los dos tercios restantes de esta última página, ocupados por dos *Etsemplo*—subrayada esta voz ambas veces en el original—.

satzeco becatua: Eta oinetan duzun cate su uzco (sic) ori? hau ceren gastetasu-  
nean dantzatu nitzan...

*Etsemplo.* Napolesco Hirian predicatzenzuelaric S. Francesc (sic) San Ye-  
ronimacoac, Catalina deitzencen emaztequi gazte eta abrats batec, Sainduac  
predicatzenzuen dembora berean burla gueyago eguiteco ezartzenzuen bere  
echean dantzac eta bertze gaineraco yocu madaricatuac. Erratencioten uzteco  
gauza ariec, bainan arrec eguitenzuen gaizquiago. Egun batean bada, Sainduac  
predicatzenzuenean Catalina bere dantzan cegolaric salaren erdi erdian ilic  
eroricen. ¡Oh! guciac gueldituciren estonaturic! Dembora berean gure Jaunac  
errebelatucion Sainduari: Ustendu (sic) bere predicua eta erratendu, Zatozte  
nerequin eta icusicoduzue Jaincoaren justicia. Joatenda Hiri gucia Sainduare-  
quin, sartzendire Catalinaren salan, eta icustendute ilic icatza baino beltzago.  
Catalina, erratendio Sainduac, alchazaite; yaiquitzena. Cer estatutan zaude?  
ni beticotz damnatua. Erranzazu cergatic? Ceren mespreciatuditut zure abi-  
suac.

Bada emen gucien aintzinean iracutsitzatzu ditutzun penac; oh ene a!  
icusizuten infernuco suaz inguraturic... Han berean iscribatuzuten icusizutena  
eta orai arteo conserbatzendute Napeloco (sic) gorde lecuan edo Archivoan.

